

GAIA: ESKOLA TXIKIAK • ESPERIENTZIA: LAMIAKO MASKARADA
• EKARPENA: HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK • GALDEIDAZUE: MARIAJE URANGA • JOXE MARI AGIRRETXE "PORROTX"

hh
hik hasi

101

5 EURO • 2005EKO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Mari Jose Ortiz

"Oso zaila da, ezinezkoa ez bada, zoriontsua den haurra erasokorra izatea"

EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN ANTOLOGIAK

Egilea: Xabier Etxaniz Erle.

Haur eta Gazte-literaturaren gaur egungo egoera orokorra jasotzen dute bi antologia hauek: idazle eta marrazkilaria adierazgarriak, eta beraien lanik garrantzitsuenak.



- 27 idazle.
- Idazle bakoitzaren bibliografia eta biografia labur bat.
- 56 libururen zatiak.



23 idazle ●

Idazle bakoitzaren bibliografia eta biografia labur bat ●

43 libururen zatiak ●

Antologia hauek Haur eta Gazte-literaturaren gida praktikoa erabiltzeko dira, irakasleek eskolan eta gurasoek etxean, haurrei liburuak gomendatzeko garaian, oinarri sendoa izan dezaten.



ELKAR argitaletxea.
Portuierxe, 88 bis.
20018 DONOSTIA.
Tel. 943 310267
elkarlanean@elkarlanean.com
www.elkarlanean.com

aurkibidea



8
gaia

ESKOLA TXIKIAK BESTE ESKOLA EREDU BAT

Euskal Herrian eskola txiki ugari daude, batzuk elkarren artean bildurik eta beste batzuk ez. Ezaugarri desberdinak dituzte beste eskolekin konparatuta, eta horregatik beste eredu bat osatzen dute. Horretaz mintzo dira bertako protagonistak.



16
elkarrizketa

MARI JOSE ORTIZ

Adimen emozionalaz gero eta gehiago hitz egiten da eta hari horri tiraka hasi gara Mari Jose Ortiz EHUKo irakaslearekin. Espero bezala, soka luzea ekarri du gai konplexua bezain zirrargarria den honek.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ESKOLA TXIKIAK BESTE ESKOLA EREDU BAT

16 elkarrizketa

MARI JOSE ORTIZ

24 esperientzia

Lamiako Maskarada

Nieves Saratxaga

27 ekarpena

Haur Hezkuntzako profil profesionali buruz

Cristina Elorza

32 galdeidazue

Mariaje Uranga

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Iñaki Eizmendi. Ttakun kultur elkarte


42 Atzeko atetik

Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANIZA S.A.L. Azaleko irudia: Mari Jose Ortiz (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-IX-30). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Hik Hasik 10 urte bete ditu



Euskal Herriko ikasleei eta herritarrei zor diegun kalitatezko eta ongi finkaturiko hezkuntza eredu barneratzaile edo inklusibo bat osatzen ari gara.

Hik Hasik 10 urte bete ditu. Orain dela 10 urte sortu zen oinarri programatiko bat abiapuntu hartuta. Hik Hasi proiektua kokatzen zuen eta baita helburuak ere. Orain, 10 urte pasa ondoren, oinarri haiei, urte hauetan emandako urratsei eta etorkizuneko ildoiei begira jartzeko unea iritsi da.

Euskal hezkuntzan emaitza handiak lortzen joan gara azken hamar urteotan. Hala ere, kezka berriak sortzen doaz etengabe gure hezkuntza sistema propioari dagokionez.

Nafarroa, Iparraldea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lotura guneak jaiotzen doaz apurka-apurka. Mugimendu horri guztiari, euskal hezkuntza sistema deitzen diogun horri, gizartean ongi erroturiko norabide euskaldun ba-

terantz bideratzen jarraitzea da etorkizunerako lana, normalizazioa lortu arte. Zatiketa gainditzea eta herritarren kohesioa lortzea izan behar dugu helburu.

Hezkuntza, eskubide unibertsal izateaz gain, lehentasunezko elementua da garapen pertsonalerako zein herri baten garapenerako.

Hori ahaztu gabe, gure hezkuntzaz dihardugunean, zehatzago esateko eta laburbilduz, hontaz ari gara: euskal kulturaren eta munduko gainerako gizarteekiko zabaltasunean oinarritutako curriculum propioaz, irakasle zein hezitzaile iraunkor eta euskaldunaz, euskaldunok geure esperientzia eta behar propioetatik eraikitako hezkuntza eredu batetaz, zentro bakoitzaren autonomiaz zein baliabide publiko nahikoaz; azken batean, Euskal Herriko ikasleei eta

herritarrei zor diegun kalitatezko eta ongi finkaturiko hezkuntza eredu barneratzaile edo inklusibo batetaz ari gara.

Jada 10 urte konplitu ditu Hik Hasi aldizkariak. 10 urte Euskal Herriko ikastetxe eta irakasle gehienek eskutan. Hilero ikuspuntu eta atal desberdinak jorratuz. Hezkuntzako arazoei arnas emanez. Haur eta gaztetxoekin lan egiten dugunon hileroko informazio, eztabaida eta elkargunerako tresna bilakatu zaigu aldizkaria. Euskal hezkuntza munduan nolabaiteko erreferentzia izatera ailegatu garela ere esatera ausartuko ginatke.

Guztion ekarpenen beharrean jarraitzen du aldizkari honek, atek zabalik ditugu orain ere, duela hamar urte bezalaxe, nahi duzen guztiok parte har dezazuen.

kronika

Seaskak gero eta ikasle gehiago ditu, baina Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dizkio behar adina irakasle postu eman nahi: bost postu erdi gehiago, alegia.

“Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez du galarazten, ofizialki, ikastolen garapena, baina euskararen galera indartzen duen logika batean sartu da”, Ixabel Xarriton Seaskako lehendakariaren hitzetan.

Postuak ukatzeko motiboa, “eskualdeetako ikastetxeen arteko berdintasun eredu” dela argudiatu du Hezkuntza Ministerioak. Ikasgelatako haur kopurua hartzen du haintzat, ez hizkuntza helburuak lortzeko behar diren baliabideak.

Irailaren 14an Seaskako 50 kidek Paueko Akademia Ikuskaritza okupatu zuten, ahalik eta ikuskariak bilkura baterako hitzordua eman zien arte. Poliziak indarrez atera zituen gero.



% 41 dira D ereduan Euskal Herrian

Euskara hutsean ikasten dutenak erdia baino gutxiago dira. Datu hori unibertsitarioak ez diren ikasleei dagozkie. D ereduak zenbaki ezberdina hartzen du hiru administrazioetan: EA-En % 52, Nafarroan % 24 eta Iparraldean % 4,6.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan D ereduak gero eta ikasle gehiago ditu. Orain 10 urte, hirutik batek soilik hautatzen zuen D eredu, eta aurtengo ikasturtean bitik batera pasa da kopuru hori. Etorkizunean ere euskararen hautua gero eta gehiagok egingo duela dirudi, izan ere, Haur Hezkuntzan % 7,8 baino ez dira arituko aurtengo gaztelerazko A ereduan (euskara ikasgaia da). D eredu hautatzen du % 62k.

Nafarroan gaztelania hutseko G ereduan eman du izena % 54k. D eredu ari direnak % 24 dira, eta A eredu-

koak % 21. B eredu elebiduna 4 ikaslek soilik hautatu dute.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan 2.200 ikaslek jardungo dute murgiltze ereduan. Frantsez hutsean ikasiko du % 95,6k.

A eta B ereduak ez dute euskalduntzen, baina eskaintzen dira

Hizkuntza ereduen eztabaidak itxi zuen joan den ikasturtea, eta berria ere gatazka berak ireki du. Anjeles Izuetak zuzentzen zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskara maila neurtzeko azterketa egin zien EAeko 16 urteko 1.192 ikasleri (ingelesezko *First* mailaren pareko froga zen). Emaitzak argigarriak ziren: euskaraz komunikatzeko gaitasuna, A ereduko bakar batek ere ez zeukan, B ereduko % 33 zen gai eta D ereduan % 68.

EAeko hizkuntz ereduen sistema hori, duela 23 urte indarrean jarri zena, gaur aldatzeko premian dagoela esatean bat datoz eragile guztiak, baina eritmoetan ez daude ados. EHBerentzat aztoratzekoa da. “Administrazioak hizkuntz eredu batzuek indarrean dagoen legedia ez dutela betetzen aitortzen du, baina, bitartean, hizkuntz eredu horiek eskaintzen jarraitzen du”. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariaren ustez, hezkuntza sistemak haur guztiak euskalduntzeak “lehentasun politikoa” izan behar du.

Ikastolen mugimenduak eta eskolak egiten duten ekarpena handia izan arren, ikasleen gaitasun komunikatiboak ez dira parekoak euskaraz eta gaztelaniaz. Gaitasun komunikatibo hori parekoa ez den bitartean diglosian biziko gara.

Jose Manuel Odriozola



Nafarroan Deredua: "prefabrikatua" edo "alegala"

Patxi Larrainzar ikastetxean haurrak ez dira eskolan hasi irailean. Gurasoek hori dute greba egiteko modua. Eraikin berria eskatzen diote administrazioari, masifikazioa dela-eta. Egun, Ave Maria ikastetxearekin (gaztelaniazko eredua) partekatzen dute eraikin bera, prefabrikatua, gainera. Guztira 610 ikasle daude, eta ez dago haur guztientzat tokirik. Hezkuntza Departamentuko ordezkariak kontrakoa erantzun diete, ordea: "aurten izena eman duten haur guztiak hartzeko tokia sobera dago. Ikastetxe horretan ez dago aparteko arazorik".

Sortzen-Ikasbatuaz-ek beste behin eresalatu du Nafarroan Dereduko ikastetxe publikoek duten egoera. Haurren matrikulazioa etengabe igotzen ari da,

baina inbertsioak ez omen dira neurri berekoak. Sortzenen arabera, Iruñerrian sei eskola berri eta lau institutu egin beharko lirateke.

Bost ikastola legeztatu ezinda

Nafarroan bost ikastolek alegalak izaten jarraitzen dute: Beran, Irunberri, Lodosan, Tuteran eta Vianan daude, Gobernuak "zonalde ez euskalduna" izendaturikoan (Berakoak izan ezik). Bostak kooperatibak dira, hau da, legez ezarritakoak, baina baimen administratiborik gabeak. 540 ikasle dituzte, eta 21-30 urte bitarteko antzinatasuna dute.

Legeztatzeko, Nafarroako Gobernuak eskatzen dituen baldintzak betetzea ez da erraza: instalazio jakin batzuk behar dira eta 18 ikasle, gutxienez, ikasurte bakoitzean. Gurasoek 7 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egin dituzte orain artean. Nafarroako Ikastolen Elkarteak bost urteko trantsizio plana proposatu du ikastola horiek kontzertatuak izateko: Gobernuak urtero 90.000 euro gehiago eman beharko lituzke inbertitutakoa berreskuratzeko eta ikastolak kontzertuan sartzeko.

Legeztatzeko epea pasa da, baina legearen arabera ikastolek oraindik ere badute denbora negoziatzeko. CDN horren alde agertu da; UPNk, aldiz, ikastolei diru laguntza bereziak kentzeko bideak jorratu nahi ditu.

Erljioak ikastetxeetan egon behar duen ala ez, horixe da Hego Euskal Herrian hautsak harrotu dituen gaia. Izan ere, Espainiako PSOEren Gobernua prestatzen ari den Hezkuntzarako Lege Organikoan hauxe da aurreikusten dena: ikastetxeak erlijioa ikasgaia eskaintzera behartuta egongo dira, baina ikasleentzat hautazkoa izango da, eta emaitzak ere ez dira selektibitateko batz besterako kontuan hartuko.

Bizkaiko Ikasle Katolikoek Guraso Elkarte lege proposamenaren aurka azaldu da, euren ustez erlijioa ikasgaiak derrigorrezko eta ebaluagarri izan behar baitu.

Era berean, Eliza Katolikoarena ez den beste sinesmenen bat dutenek ere sinesmen horri buruzko ikasgaia eduki beharko luketela diote, eta bestetik, inolako erlijio ikasgairik eman nahi ez dutenek ere libre behar dutela ikasgai horretara ez joateko.

Beste zenbaitek, erlijioen kultura eta historia ezagutarazteko ikasgai bat sortu behar dela dio.

Sokaren beste muturretik, erlijioek eskola orduetan inongo lekurik ez dutela eduki behar diote. EILAS sindikatuko Pedro Matxoren aburuz, erlijioen kultura edo historia jasoko lukeen balizko ikasgaia sortzearen inguruan dagoen eztabaida "faltsua" da: "eduki horiek orain ere badaude curriculum ofizialetan. Geografia eta Historian eta Filosofian beti ikasi dira. Are gehiago, bi ikasgai horietan oinarritzko gaia da".

GAIA

Eskola Txikiak

Beste eskola eredu bat





Herrian pisu handia dute eskola txikiek

Ikasturte hasiera izan arren, Euskal Herriko herri txiki askotan ez da ikastetxe handietako zalapartarik entzun, eskolak txikiak baitira.

Landa eremuko herri txikiak (1.000 biztanle baino gutxiago) edo auzo sakabatuak dira, eta bertako hezkuntza eskaintza bakarra da. Zortzi ikas unitate baino gutxiago dituztenez, gelatan adin desberdinetako ikasleak eskolatzen dira. Berezitasun horiengatik dira desberdinak.

Euren artean desberdintasunak ere badituzte. Batzuk dozena erdi bat hurrekin daude, eta beste batzuk 50ekin edo 90ekin. Egoerak ezin dira orokortu, baina ezaugarri, kezka eta behar komunak badituzte. Horregatik, elkarren berri badute eta harremanetan daude. Gu ere harremanetan jarri gara beraiekin.

G

Zaila da Euskal Herriko eskola txiki guztiak argazki bakar bat egitea. Izan ere, euren arteko harremana ez da berdina leku guztietan. Iparraldean, esaterako, "eskola txikiak" kontzeptua ez da erabiltzen. Ikastetxe publikoa, giristinoak edo ikastolak daude, eta horien barruan handiak, ertainak eta txikiak. Azken horiek ez daukate lotura berezirik txikiak izateagatik. Hegoaldean, ordea, eta batik bat Gipuzkoan eta Nafarroan, txikitasun horrek elkartu egin ditu.

Eskola txiki gehienak nekazaritza eremukoak dira, baina hor ere badaude eskola handiak. Araban, esate baterako, eskola txiki gutxi daude kontzentrazioaren ondorioz. Herri batzuetan pilatzen dira inguruko haurrak eta ikasle asko dituzte. Ondorioz, ez dira eskola txikitat hartzen nahiz eta landa eremuan egon. Arabako Errioxako zentroekin gertatzen da hori.

Nafarroa Beherean eta Garaian eta Zuberoan, ostera, batzuk hain dira txikiak, ezen ixteko arriskuan dauden. Egoera horretan aurkitu ziren Larraineko eta Garaibiko eskolak, baina mementoz, herritarren mobilizazioak tarteko, ateak irekita segitzen dute.

Gainerako lekuetan ez da horrelako mehatxurik sumatzen. Gipuzkoan itxi baino gehiago ireki egin dira azken urteotan. EAEn Haurreskolak Partzuergoaren zentroak ere ireki dira hainbat herritan 0-3 urteko haurrentzat. Horrek, gerora Lehen Hezkuntzako ikastetxea irekitzeko aukera ekar dezake eta albiste ona da.

Herriak aldatzen, eskolak ere bai

Herri txikietan eskola txikiak daude, baina ez eskola gutxiak. Populazio txikiko eremuetan kokatuta daudenez, ikasle kopuru txikiak dituzte, eta ondorioz eskola antolaketa berezia dute gaur egungo eskola eredu nagusiare-

kin konparatuz gero.

1970eko Ley General de Educación delakoak herri txikiak eskolak hiltzera kondenatu zituen, zortzi unitate baino gutxiagoko eskolak itxiz eta kontzentrazioak bultzatuz. Eskola asko itxi egin ziren eta besteak abandonatu samar gelditu ziren. 1990ean LOGSE ezarri zenean egoera aldatu egin zen, eskola txikiak aintzat hartu baitzituen.

Legeak soilik ez, herri txikiak egoera ere aldatzen ari da. Nekazaritza eremuetatik hitz egitean, nekazariak etortzen zaizkigu burura. Baina, gaur egun, askotan nekazaritza eremuetako ekonomia aktibitate nagusia ez dira nekazaritza eta abeltzantza, zerbitzuak baizik. Herri txiki asko aisialdirako gune bihurtzen ari dira.

Horrekin batera, etxebizitza berriak egiten ari dira hainbat herritan, eta beraz, familia berriak datoz bizitzera. Ondorioz, herriak asko ari dira aldatzen, eta hor eskolak ere badu lana. Familia berri horiek herrian integratzeak garrantzi handia du.

Eskola txikien beste ezaugarri bat hurbiltasuna da. Denek elkar ezagutzen dute eta norbanako bakoitzak pisu handia du, beste eskoletan baino handiagoa. Zeren irakasle bat eskolaren laurdena izan daiteke, edo familia bat eskolaren hamarrena. Ikastetxe handi batean sei familiek alde egiten badute, ez da ezer gertatzen. Baina eskola txiki hauetan bai.

Aldaketa horiei guztiei egin behar diete aurre, eta aldi berean, desberdin izatearen "zamari" eutsi. Beste eskola eredu bat osatzen dute eta poliki-poliki euren nortasuna sendotuz doa. Elkaritzeak asko lagundu die horretan.



Baztango eskola txikiak

15 herri txiki dira Baztanen eta hamarretan dago eskola. Txikienak 7 ikasle ditu eta handienak 39. Amaiurren 18 daude, Azpilkuetan 7, Erratzun 21, Arizkunen 29, Gartzainen 16, Iruritan 39, Almandozen 23, Zigan 21, Arraiotzen 10 eta Oronozen 36. Eskola handienetan 3 irakasle daude eta txikienetan bakarra. Beste bostetan (Elbete, Elizondo, Lekaroz, Aniz eta Berroeta) lehen baziren eskola txikiak, baina behin itxi ondoren, ez dituzte ireki, nahiz eta haurrak egon.

Eskola horiek guztiek osatzen dute Baztango Herrietako Eskolak eta urte asko daramate elkartuta. Bakoitzak bere dinamika eta martxa ditu, eta horrez gain, elkarrekin gauza anitz egiten dituzte: proiektuak, irteerak, kanpaldiak...

Astelehenetan herri guztietako 3. mailatik gorakoak Elizondon elkartzen dira mailaka. Adibidez, Azpilkuetan Amaia da 6. mailako bakarra, eta Elizondon maila bereko beste 21ekin elkartzen da. Egun horretan espezialitateak ematen dituzte: ingelesa, musika eta gorpuztuz hezkuntza.

Asteazkenetan, berriz, eskolak bina-ka elkartzen dira kasu batzuetan: astelehenetan Arraiozkoak Oronezera joaten dira; asteartetan Zigakoak Almandozera; ortziraletan Azpilkuetakook Amaiurrera. Gainerako herrietan kopuru handiagoak dira eta bakoitza bere lekuan geratzen da. Egun horietan ere espezialitateak lantzen dituzte.

Haurrak bezala, irakasleak ere Elizondon elkartzen dira, espezialistak eta 2. eta 3. zikloetako tutoreak. Horrela, espezialistak eskolak ematen egoten dira eta tutoreek komunak dituzten gaiak lantzen dituzte; paper kontuak, udal-txeekoak, Nafar Gobernuak... Hor egindakoa astelehenetako bileratan gainerakoei azaldu eta pasatzen diete.

Elkarrekin egoteak abantailak dituela dio Maite Oteiza Azpilkuetako irakasleak. "Alde batetik elkarbizitza edo harremanak sendotzeko balio du, eta bestetik gu ere babestuago gaude. Eskola batean bakarrik baldin bazaude eta ingurukoekin deskonektatuta ez duzu erreferentziarik. Modu honetan koordinatuta gaude. Eskola guztien artean materiala, ekoizpenak eta abartrukatzen ditugu. Modu horretan gure lanek helburu bat dute, bertze eskolei erakustea. Era berean, iritziak ere jasotzen ditugu. Elkarlana aberasgarria da

eta haurren artean ere harremanak sendotu egiten dira".

Koordinazioak ongi funtzionatzen du, baina falta botatzen dutena denentzako zuzendaritza bakar bat izatea da. "Badira gauza anitz gelditzen direnak pixka bat zintzilik" dio Maitek. "Erran nahi dut, baldin bagenuke zuzendaritza talde bat, horrek agian hartuko lituzke erabaki batzuk edo bera izanen zen gai espezialistekin solas egiteko edo arazoren bat konpontzeko. Baina hamar izanik, pixka bat laxo gelditzen da. Aldika gure bilerekin dinamika edo funtsezko martxa falta zaiela ohartarazi dakute, bana hori da dugun aukera eta memento bakarra gai guztiak ukitzeko. Azken finean, 10 zuzendari gara leku desberdinetan eta, gure ustez, denendako inportantea da, eskola osoko funtzionamendurako".

Egun bat Azpilkuetako eskola txikian

Maite Oteiza irakaslea eta herriko zazpi haur sartzen dira Azpilkuetako eskolara egunero. 300 biztanlera iristen ez den herritxoa da Azpilkueta. Amaia 6. mailan dago, Leire 3. mailan, Manex eta Maria 1. mailan, Iratxek 5 urte ditu, Naiarak 4 eta Sara aurten hasi da 3 urterekin. Orain dauden haurren artean ez



Baztango eskola txiki bakoitzak bere dinamika eta martxa ditu, baina astean bitan elkartzen dira haur guztiak. Proiektu eta lan anitz egiten dituzte elkarrekin, bai ikasleek eta baita irakasleek ere.



Maite Oteiza
Azpilkuetako eskola
txikiko irakaslea

dago adin tarte handirik. Urte batzuetan tarte gehiago egon dela aipatu du Maitek. Horregatik, herrian haundaldi bat baldin bada, festa izaten da, eskolarako haur bat gehiago erran nahi baitu.

Gaur Haur Hezkuntzakoekin korroa egin du Maitek, eta bitartean 3. eta 6. mailakoak euren liburu eta koadernoarekin lana egiten hasi dira. Korroko martxa bukatutakoan Haur Hezkuntzako txiki horiei lantxo bat jarri die Maitek, eskolako telefono gida egiten ari baitira. Puzzlea egiteko tenorean bakarrik utzi ditu eta handiengana hurbildu da, azalpenak behar badituzte-edo. Gero, txikienak Ingelesko irakaslearengana joan dira, eskolako sarrerara, bertan eskola bat emateko aprobetxatu dute, bikoizketa baita. Tarte horiek aprobetxatzen ditu Maitek handiei arreta handiagoa behar duten azalpenak emateko. Ondoren 1. mailako Manex eta Maria joan dira Ingelesko irakaslearengana. 4-5 urtekoak ordenagailura hurbildu dira eta handienek lagundu diete. "Elkarri aunitz laguntzen diote, beraiek ere irakasleak dira".

"Hemen ez dugu ordutegirik segitzen" dio Maitek. "Ikasturte hasieran egiten dugu bat Iruñera igortzeko, baina gero gure airera moldatzen gara". Amaiak eta Leirek barre egiten dute. "Gauza bat egiten gustura baldin bagaude, denbora gehixeago jarraitzen dugu. Eta aspergarria bada, moztu egiten dugu".

Bost arlo erakusten dizkie Maitek: matematika, ingurunea, plastika, gaz-

telania eta euskara. Matematikan bakoitzak bere mailari dagokion liburua jarraitzen du. Euskaran, aldiz, ez dute testu libururik erabiltzen, proiektuekin egiten dutelako lan. "Halere, lan koadernoak erabiltzen ditugu, autonomia ematen duelako bakoitzak bere lana egiteko eta niri beste hurrekin egoteko". Ingurunea zikloka antolatzen dute eta dagokien gaitegia bi multzotan banatzen dute: A eta B. Modu horretan, ziklo bukaeran gaitegi osoa lantzen dute. "Une honetan Euskal Herria gaia lantzen ari gara. Ziklo desberdineko ikasleak ditudanez, bakoitzari bere mailara egokituz lantzen dugu" argitzen digu Maitek.

Haur Hezkuntzan ez dute libururik erabiltzen. Hiruhileko bakoitzean gai bat hartu eta horren inguruan egiten dute lan.

Gelan giro lasaia dago, etxeko giroa, goxoa. Bai irakaslea eta bai ikasleak pazientzia eta errespetu handiz mugitzen dira. "Lan egiteko beste modu bat da, arras diferentea", dio Maitek. "Beste eskoletan baino ordu gehiago sartzen ditugu eta ez dugu tarterik libratzen. Baina goxotasuna, giroa eta hurrekiko harremana jasotzen ditugu trukean. Balantzan jarrita, argi daukat nahiago dudala eskola txiki batean ari zena".

Nabari da Maite ohituta eta gustura dagoela eskola txiki batean, baina irakasle guztiei ez zaie gauza bera gertatzen. Etorri berri gehienak eskola handietako erreferentziarekin edo eske-marekin iristen dira eta eskola txikietako errealitatea desberdina denez, moldatu beharra dago. "Dagoenarekin eta daudenekin moldatu behar dugu gure lana, eta alde horretatik aberatsa da".

Eraikin zaharregiak

Baztango Herrietako Eskolei buzuhauste handiena zentroen egoerak sortzen die. Arizkongo eskolan zola goratu eta saneatu egin behar zuten lur azpiko olibondoak ustelduak zeudelako. Joan den Eguberrietan Amaiurko eskolako gela bateko sabaia lurrera erorri zen. Erratzuko eskolan uda amaiera honetan berogailua aldatzen ari ziren eta zola azpikoa saneatzeko gelditu da. Iaz Zigako eskola osorik erori zen, eta berria egin arte apaizaren etxean dade. Almandozen aspalditik ari dira eskola berria aldarrikatzen. Oronozko eskolan udan izandako sutearen ondorioz psikomotrizitate gela erabat erreta gelditu zen eta gainerako geletako material gehiena hondatuta.

Azken urteotan dagokion administrazioak ez du ezer askorik egin herri hauetako eskolen alde. Bertakoek galdera bat darabilte buruan: Amaiur, Erratzu, Azpilkueta, Arizkun, Gartzain, Iruñeta, Arraioz, Oronoz, Ziga eta Almandoz gutxiago al dira bertzeak baino?

Maite Oteiza: "Lan egiteko beste modu bat da. Beste eskoletan baino ordu gehiago sartzen ditugu eta ez dugu tarterik libratzen. Baina goxotasuna, giroa eta hurrekiko harremana jasotzen ditugu trukean".

Gipuzkoako eskola txikiak baturik

Gipuzkoako eskola txikien sarea 1987an abiatu zen. Garai hartan herri txikietako eskolak oso egoera ahulean zeuden 1970eko Ley General de Educación delakoak kontzentrazioak bultzatu zituelako. Horrez gain, herri askotan, nahiz eta eskola izan, familia askok herritik kanpoko eskola aukeratzen zuten prestigioagatik eta herriari euskaraz ikasteko aukerarik ez zegoelako.

Egoera horretan, irakasle talde batek, eskola txikien balioaz jabeturik, elkartu eta lanari ekin zion bi helburu nagusirekin: eskola txikien garrantzia aldarrikatzea eta arazoak plazaratzea; eta irakasleen formazioa eta koordinazioa bultzatzea. Horrek eskola txikien arteko antolakuntza berri bat ekarri zuen, eta irakasleen elkarlanari gurasoena gaineratu zitzaion. Horrela, 1993an Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadora sortu zuten. Elkarri babesa emateko, hainbat zeregin elkarrekin egiteko eta eskola txikien nortasuna sendotzeko aukera ikusi zuten.

Une honetan 26 herri eta auzo daude Koordinadoran: Abaltzisketa, Aduña, Aginaga, Aia Andatza, Aia Lardizabal, Aizarna, Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Angiozar, Arroa, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ereñozu, Errezil, Gabiria, Igeldo, Ikaztegieta, Lizartza, Oikia, Olaberria, Zerain, Zizurkil San Millan eta Zubietia. Elkarren berri badutela esan daiteke. Euren arteko harremanak bultzatzen dituzte proiektu komun bidez eta esperientziak eta materialak trukaturik. Sarritan antzeko arazoak izaten dituzte eta Koordinadora arduratzen da administrazioaren aurrean ordezkari papera egiteaz. Helburu

nagusia da eskola txikien errealitatea ezagutaraztea eta dituzten ezaugarri bereziak baloratzea, bai irakasleek eta bai gurasoek, herriek, administrazioek eta gizarteak.

Eskola txikien I. topaketak

2004-05 ikasturtearen amaieran Eskola Txikien I. Topaketak egin ziren Bergaran. Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola txikietako irakasleak eta gurasoak bildu ziren eta hainbat gai jorratu eta eztabaidatu zituzten elkarrekin. Hurrengoan Arabakoak, Nafarroakoak eta Iparraldekoak gehituko balira, asko aberastuko litzateke.

Topaketon helburu nagusia elkarren berri jakitea eta harreman finkoago bat sortzea da. Lau gai jorratu ziren taldetan banaturik: zuzendaritza eta eskola kudeaketa, adin aniztasuna gelan, eskolen arteko harremanak eta gurasoen partaidetza.

Zuzendaritza eta eskola kudeaketa

Eskola txikietan kezka pizten duen gaia da zuzendariena. Zuzendariak ez ditu eskola gehienetan bezala zuzendari lanak soilik egiten, hori eta gehiago egitea tokatzen zaio. Beste edozein eskolatan dituen ardura eta lan berberak ditu. Lanak beste dimentsio bat du, baina lan kopuru bera da. Horrek izugarriko pisua eta ardura ematen dizkio. Eredua eskola handiei begira egina dago eta ez eskola txikiei begira. Itziar Olaskoaga Gipuzkoako Eskola Txikien koordinatzaileak adibide batekin azaltzen digu hori. "Administrazioko paperrak betetzeko eredu batzuk egon ohi dira, baina sarritan ez dira egokiak guretzat. Horrek buruhausteak sortzen dizkigu". Gainera, eskola gehienetan administrazio lanetarako langileak daude, baina eskola txikietan ez.

Itziar Olaskoagak dioenez, "zuzen-

daritzari buruzko marko orokor bat badago, baina gure beharko genuke. Guk geronek bilatu behar ditugula alternatibak. Gure egoerara egokitutako proposamenak geronek egiten ez baditugu, inork ez ditu egingo guretzat".

Irakasleen ezegonkortasuna ere aztergai izan zuten. Izan ere, eskola txiki guztietan bizi den egoera da eta kezka handia sortzen duena. Irakasleak asko aldatzen dira, eta horrek zaildu egiten du proiektu sendo bat aurrera eramatea.

Adin aniztasuna gelan

Hori da eskola txikien ezaugarri nagusia: adin desberdinetako haurrak batera egotea gelan. Transmisio bidezko ikasketa nagusi denean, kezka hori egotea normala izan daiteke. Izan ere, irakasleak irakasten du eta ikasleek hori jasotzen dute. Egoera horretan garrantzitsua izan daiteke ikasle guztiak ahalmen berdina izatea, irakasleak irakasten duena denek jaso ahal izan dezaten. Baina LOGSEk beste eredu bat proposatu zuen eta talde lanari, pedagogia aktiboari, balioei eta aniztasunari garrantzia ematen die. Kasu horretan, adin desberdinetako haurrak gela berean edukitzea ez da arazo: eskola bakoitza komunitate txiki bat da, non ikasle bakoitzak bere ikasketen protagonista izanik besteekin ikasten duen, batzuetan berak baino gehiago dakite-



nekin eta bestetan gutxiago dakitene-kin. Gainera, horrek haur bakoitzaren rola aldatzeko aukera ematen du; urte batean txikiena dena hurrengo batean handiena izango da, eta ez beti zaharrena edo gazteena. Eskolatik at ere adin desberdinetakoak elkarrekin egoten badira herri txikietan, eskola barruan zergatik ez?

Antolaketa horrek lan gehiago eskatzen die irakasleei. Gelan egiten diren planteamenduek zabalagoak izan behar dute eta merkatuan dauden testu liburuak ez dira aproposenak horretarako. Izan ere, kontua ez da denak gela berean egotea baina bakoitza bere mailako testu liburuarekin, orduan ez bailitzateke talde batizango. Planteamendu malguagoak eskatzen ditu eredu honek. Garrantzitsuena errespetua eta guztiei leku egitea da, eta hori asko zaintzen da.

Eskolen arteko harremanak

Eskola bakoitzak bere proiektuak dauzka, baina beste eskolekin batera gauzak egiteko beharra ikusten da. Garrantzi handia ematen zaio eskolen arteko harremanari, oso aberasgarria delako. Irakasleei begira, "haurrak atera egin behar dira eta beste haur batzuekin harremanetan jarri. Gure kasuan, hoberena beste eskola txiki batekoekin elkartzea da". Eskolei dagokienez, indartsuago eta babestuago sentitzen dira antzeko beste eskola batekin erlazionatzean eta nortasuna sendotzeko balio izaten du. Eta irakasleei begira, ona da elkarrekin ikasteko eta laguntza jasotzeko.

Harremanak eskola txikien eredu eraikitzen joateko ere balio du. "Zeren badirudi eskola eredu bat dagoela eta bakarra dela. Eta eredu hori ez da onena guretzat. Horregatik, beste eredu bat nahi dugu".

Bizkaian lotura gutxiago

Bizkaian guztira 29 eskola txiki daude sei bailaratan banatuta: lau Busturialdean, bosna Uribe-Kostan, Enkarterrietan eta Lea-Artibain, bi Durangaldean eta zazpi Arratia-Nerbioin. Bi eta zortzi gela artean dituzte; gehienek lau edo bost. Ez dago unitate bakarreko eskolarik beste herrialdetan bezala. Izan ere, Bizkaiko herriok handiagoak ei dira eta haur gehiago dago. Bidenabar, azkenaldian herriak handitzen ari dira eta haur kopurua igotzen. Zeberion, esate baterako, 90 ikasle daude. Hala eta guztiz ere, eskola txikiak izaten jarraitzen dute. Eurak diotenez, "herri handien antza gehiago dugu, baina ez dago hango eskoletan adinako pilaketarik. Oraindik ere ikasle gutxi dira eta herriko haurrak izaten jarraitzen dute, desberdinak".

Bizkaiko eskola txikiak ez daude inongo koordinatoratan edo elkartetan batuta, ez dute lotura finkorik. Koordinatzaile bat egongo balitz euren arteko harremanak erraztuko lirateke segur aski, baina inor ez dago prest ardura hori hartzeko memento, nahiz eta Hezkuntza Saila horretarako prest agertu. "Horrelako figurak kezka edo beharizan bat dagoenean sortu behar dira, eta guk ez dugu argi ikusten beharizan hori" dio Nekane Otxoa Arrankudiagako eskola txikiko irakasleak.

Horri baino garrantzi handiagoa ematen diote haur eskolen eta eskola txikien arteko harremanari. 11 herritan ireki dituzte haur eskolak, baina ez dute inolako erlaziorik euren artean. "Helburua zera izango litzateke: herri guztietan 0-2 zerbitzua eskaintzea, eta ahal dela, herri txikiak garen neurrian, denok erantzun bateratu eta koordinatu bat ematea".

Arratia-Nerbioiko kasu berezia

Arratia-Nerbioiko hiru eskola txikik harreman berezia dute euren artean; Arrankudiagakoak, Areatzakoak eta Zeberioakoak. Lehen nahiko arrunta omen zen eskola txikien artean batzarrak egitea, gurasoak elkartzea, material kurrikularrak elkarrekin prestatzea eta abar. Baina, ohitura hori galdu egin da denborarekin eta irakasleek beste interes batzuk izan dituztelako. "Gurean ez, gurean gero eta indartsuago dago" dio Nekane Otxoak. Aipatu hiru herrietako eskolak elkarrekin egiten dute lan. "Arlo metodologikoan ia-ia klaustro bakarra izango bagina moduan funtzionatzen dugu", azalitzen digu Nekane. "Konstruktibismoaren ikuspuntua da gure eskoletan nagusi. Ondorioz, testu libururik ez daukagunez eta lana proiektuekin egiten dugunez, bildu egiten gara materialak sortzeko, gelatan gertatzen denaz eztabaidatzeko, gure esku-hartzea aztertzeko, proposamen berriak diseinatzeko... Edozein eskola handietan maila berean irakasle edo gela bat baino gehiagoren artean dagoen funtzionamendua guk hiru eskolon artean egiten dugu". Horretarako, ziklo bakoitzeko irakasleek astean zehar bi ordu hartzen dituzte elkartzeko, koordinatzaile batekin.



Gurasoak aktiboki lanean



Gloria CASTAÑOS

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIETAKO GURASO ELKARTEEN
KOORDINADORAKO LEHENDAKARIA

Eskola txikietan ikasle kopurua baxua bada, familiena ere bai. Ondorioz, familia bakoitza garrantzitsua da, ondo zaindu beharrekoa. Eta familiek ere eskola ongi zaindu behar dute. Gurasoek badakite hori, elkarren beharra dutela, alegia. Ahal dela herrian eskolatu nahi dituzte haurrak. Askok dira hori pentsatzen dutenak eta Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadoran bilduta daude. Horko lehendakaria da Gloria Castaños. Eskola txikietan sinesten duten gurasoen koordinadorako lema zaina izan da azken urteotan.

Nola funtzionatzen du Koordinadorak?

Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarteak dira Koordinadorako partaideak. Hainbat gauza elkarrekin egiten ditugu, baina herri eta eskola bakoitzak bere autonomia dauka. Gainera, herri bakoitzak bere izaera propioa du, bere funtzionatzeko era eta bere ohiturak. Hori errespetatu egiten da.

Eskola txikien izaerari lotuta, Gipuzkoako eskola guztiok antzeko ikuspegia eta helburuak eduki ditzakegu, eta horretan elkarrekin jardun gaitzake.

Zein da guraso gisa eskola txikiez duzuen ikuspegia?

Oso garbi ikusten dugu herriak eskola behar duela eta eskolak herria behar duela. Denoi interesatzen zaigu Haur eta Lehen Hezkuntza herrian izatea. Garrantzitsua iruditzen zaigu. Denok garbi daukaguna zera da: gure herrian edo auzoan dagoen eskola mantendu egin nahi dugula.

Zergatik ematen diozue hainbeste garrantzia haurrak herrian gelditzeari?

Guretzat oso garrantzitsua da haurrak herrian egitea lagun koadrila. Lehen harremanak hor ematen dira, eskolaren inguruan: eskolan, parkean, eskolaz kanpoko jardueratan... Seme-alabak dauden lekuan, gurasoak ere hor egoten dira. Eta konturatu gabe, herrian daude, herriko partaide dira, eta horrek herria bizirik mantentzen du. Horixe da, hain zuzen ere gure leloa: eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik. Eta hori da errealitatea. Herri bat noiz dago bizirik? Bizitza daukanean kalean eta jendea joan-etorrian ikusten denean. Eta nork ematen dio bizitza handiena? Haurrek.

Horretan sinesten dugu gurasoek eta horregatik nahi dugu haurrak ahal dela herrian bertan gelditzea. Pena ematen du haur bat aldameneko herriko eskolara joaten dela eta gero herrian integratu ezinik eta loturarik gabe gelditzen dela ikusteak.

Zer lan egiten dituzte Guraso Elkarteek eta Koordinadorak?

Helburu nagusia eskola txikiak sendotzea, duten nortasuna onartzea eta onarpen publikoa izatea da.

Ikusten ditugun beharrei erantzuten saiatzen gara. Gura azken urteetako lanak zerbitzuen inguruan egin dira. Eskolak eta herriak dituzten zerbitzuak hobetzen jardun gara. Zergatik? Beharra dagoelako.

Azken urteotan jangelaren beharra sortu da. Lehen aiton-amonekin edo izeba-osabekin bazkaltzen zuten gurasoak lanean baldin baziren, baina gaur egun herrian aiton-amonarik edo izeba-osabarik ez duten asko daude eta horiek nonbait bazkaldu behar dute. Eskola askotan ez zegoen jangela irekitzeko lekurik eta herriko jatetxe batera joaten dira. Jangelaren beharra herri askotan zegoenez, bakoitza bere aldetik jardun beharrean, Koordinadora jardun da eskaerak egiten eta abar.

Hurrengo erronka goizeko zaintzak izango dira. Leku batzuetan martxan daude eta beste batzuetan ez. Bakoitza bere aldetik ari da eta agian Koordinadorak esku hartu beharko luke tamaina handiko gaia delako.

Horrelako zerbitzuak lortzeko, eta batez ere iraupena izateko, diru laguntzak behar dira eta Koordinadora arduratzen da horien eskaera egiteaz.

Zein da Eusko Jaurlaritzaren jarrera eskola txikiekiko?

Sailburu berriarekin ez gara bildu eta





ez dakigu gai honekiko zer jarrera, iritzi, proposamen eta kriterio dituen. Aurreko legealdian batzorde bat sortu zen eta aurrerapauso batzuk eman dira, baina guk gehiago nahi dugu. Erritmo kontua izango da agian. Guk beste martxa bat nahiko genuke eta agian Lakuarentzat azkarra eta dena izan daiteke. Hiruburu batean hamar etxebizitza egitea huskeria bat da, baina 300-400 biztanle dituen herri batean kopuru handia da eta horrek aldaketa handia ekar dezake eskolan, ez baita berdina haur bat edo bi jaiotzea edo hamar.

Udalen parte-hartzea nolakoa da?

Herri guztietan ez da berdina. Udaltxetan ere, dauden taldeen eta haien inplikazioaren arabera, aldatu egiten da. Orokorrean udalek ere sinesten dute eskolan. Mantendu egin behar direla eta lagundu egin behar zaiela pentsatzen dute.

Zein dira eskola txikiak gurasoen kezka nagusiak?

Lehen Hezkuntza bukatu eta institutura joan behar dutenean hainbat kezka sortzen zaizkie batzuei: nahikoa maila edukiko al dute? Talde txikian ohituta, talde handi batean moldatuko ote dira? Horrenbeste irakaslerekin moldatuko ote dira? Nahikoa prestatuta joango al dira?

Gloria Castaños: "Oso garbi ikusten dugu herriak eskola behar duela eta eskolak herria behar duela. Horregatik gaude gure herriko edo auzoko eskola mantentzearen alde".

Lagunak egiteko trebetasunik edukiko al du?

Normalean irakaslearekin egiten diren bileratan planteatzen dira kezka horiek eta irakasleak aintzat hartzen ditu. Institutuko irakasleekin ere harremanetan egoten dira. Aurreko urteetan institutura joan direnen erreferentziak ere beti lasaitzen dute. Ahozko transmisioa beti dago.

Beste kezka mota bat da semea edo alaba eskolan bere adineko bakarra izatea. Pixka bat zaharragoak edo gazteagoak ere baldin badaude, ez dira asko kezkatzen. Baina tartea handiagoa denean kezka handitu egiten da.

Zuen ustez, zein da eredu hobea, eskola txikiak ala handiak?

Ez da bat bestea baino hobea. Kalitatea ona izan daiteke eskola handi batean eta eskola txiki batean. Eta berdina-berdina egon liteke erdipurdiko kalitatea eskola handi batean eta txiki batean. Nik uste dut eskola txikiak kalitatea badagoela. Seme-alabak institutura joaten direnean beste ikasleen antzera ibiltzen dira. Ez hobeto eta ez okerrago, besteak bezalatsu. Maila horretan ez dut uste aldaketa handirik dagoenik.

Topaketetan hainbat guraso elkartu zirenet. Zer ondorio atera dituzue?

Garrantzitsutzat jo genuen guraso elkarrean artean hainbat gai jorratzea. Hasteko, guraso elkarrekin nola funtzionatzeko, zer eginkizun bete beharko litzuketen, zer sortu behar duten eskoletan, zer harreman dituzten edo eduki beharko litzuketen eskola kontseiluan, irakasleekin, herriarekin, udalarekin eta herrian dauden edo egon litezkeen beste erakundeekin...

Beste gai bat herri txikien egoerari lotuta dago. Herri batzuk handitzen ari dira etxebizitzak egiten ari direlako eta jende

berria datorrelako. Herri txiki horrek funtzionatzeko ohitura batzuk ditu eta familia berriek egoera horretara egokitu behar dute. Eskolari begira, bai eskolak eta bai familia berriek ohitura desberdinak eduki ditzakete, eta bien arteko lotura egin behar da. Horrekin batera, hizkuntzaren arazoarekin egiten dugu topo. Datoren familiak erdaldunak baldin badira, oztupo bat gehiago izan daiteke harremanetarako. Zer harreman mota eduki behar dugu? Zer hizkuntza erabili behar dugu? Nola integratu familia horiek baina euskaldun izate hori mantenduz?

Hirugarren gaia bizkaitarrei dagokiena da. Egoki ikusten dute Bizkaian ere koordinadora bat sortzea. Gipuzkoan eskola txikiak sentitzen gara. Bizkaian batzuk bai eta beste batzuk ez. Horren beharra somatzen dute eta koordinadora bat sortzeko urratsak ematen hastekoak dira.

2006an eskola txikien festa Igeldon

2006ko ekainaren 11an ospatuko da Gipuzkoako Eskola Txikien Festa Igeldon. "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" leloa izango du, ohiko moduan, hasierako aldarrikapenak oraindik indarrean jarraitzen baitute.



marijose ortiz

ELKARRIZKETA

Psikologian doktorea
EHUko irakaslea

// Emozioei beldurra diegu, ez
dakigulako nola egin aurre //



// Gaur erakutsi behar den gauzarik garrantzitsuena da, zintzoa izateak merezi duela, eta jende gehiena ona dela, kontrako eredu ari baitzaizkigu saltzen. Gehiengoa ona dela pentsatzen duzunean, zerorri ere eskuzabala zara, ez duzu beldurrik.



Psikologian doktorea da, eta EHU Hezkuntza-ren Garapen Ebolutiboko titularra. Ikerketatan gehien landu dituen gaiak atxikimendua, altruismoa eta gizartearen aldeko jarrera zein haurren gaitasun soziala dira, haurrak enpatikoak eta sozialki gaituagoak izatea familiako eta emozioen munduko zer aldagairen esku dauden ikertuz.

Hezkuntza esku-hartzea altruismoaren garapenera eta emozioen lan-ketara bideratu du.

Egiten ari den azken ikerketan zera bilatu du: zer lotura dagoen atxikimenduaren, familiako hezkuntza estiloen eta moralaren barneratzearen artean.

“Adimen emozionala”, gaur denen ahotan dagoen hitza da. Baina zer esan nahi du zehazki?

Emozioek indar izugarria dute eta bizirauteko balio izan digute, oso mol-dakorrak baitira. Esaterako, beldurrak arriskutik babesten gaitu, amorruek zapalketari aurre eginarazten digu, tristurak laguntzen digu galdu dugun objektuarengandik edo pertsonarengandik banatzen. Ikuspegi horretatik, adimen emozionala emozioek duten energia hori eta egoerara egokitzeko gaitasun hori erabiltzea litzateke, baina inteligenteki, emozioak gainezka ez egiteko modu neurtu batean, eraginkorra izan dadin eta pertsonalki zein sozialki ondo senti gaitezen.

Emozioak modu burutsuan erabiltzeko, zer gaitasun behar dira zehazki?

Lehenik eta behin, emozioaren kontzientzia hartzea da funtsezkoa; jabetzen zarenean zer den sentitzen duzuna, eta behin mentalki “haserre nago” edo “beldur naiz” esatera iristen zarenean, jada aktibazio emozionala modulatu egiten da, eta orduan zaude egoerari aurre egiteko moduan.

Beste oinarriko gaitasun bat da emozioak onartzea eta ulertzea, bai zureak eta bai besteenak: jakitea emozioek zer espresio dituzten, zer kausa, zer ondorio. Eta ulertzea, gauza beraren aurrean denek ez dutela berdina sentitzen.

Besteen emozioen aurrean enpatia adieraztea ere funtsezkoa da. Enpatia da besteen emozioak sentitzeko gaitasuna, eta laguntzaren sustatzaile da, pertsonen arteko harremanak errazten ditu eta erasoaren inhibitzaile oso indartsua da. Erasotzaileek falta izaten dutena, batez ere, da besteen sufimendua sentitzeko gaitasuna, alegia ez duela sentitzen zer sufrimendu ari zaion eragiten besteari.

Adimen emozionalak, bestetik, espresio arauak ezagutzea eta errespetatzea eskatzen du. Harrotasuna ona da, baina neurritz gain adieraziz gero, ingurukoengan atzerakoa eragingo duzu.



De-
sen-
gainuare-
kin berdin: opa-
ria jaso eta ez da onar-
tzen esatea, nahiz benetan hala pentsa-
tu, "itsusi amorratua da-eta!" (desengai-
nuaren kontrol bat bada). Espresio
arauak aldatu egiten dira kulturaren eta
generoaren arabera. Esaterako, gure
gizartean askoz gehiago onartzen da
amorrua mutilek adieraztea, neskek
baino, eta tristura adierazterakoan, al-
diz, kontrakoa.

Adimen emozionalak, emozioak kontrolatzea eskatzen al du?

Kontrolatzea baino, gehiago da
emozioen intentsitatea eta iraupena
erregulatzea. Badira modulatzeko me-
kanismo batzuk: entretenitzea, egoera-
ri buelta ematea, pentsatzea besteak
zer arrazoi izan zitzakeen modu horre-
tan jokatzeko, helburuen maila jaitea,
modu baketsuan konpontzea arazoa...
Onargarria da haurrak amorrua senti-
tzea edo beste haur batekiko jeloskor
egotea; baina onartzerik ez dagoena da
horregatik jotzea edo baztertzea.

Zergatik da hain funtsezkoa emozioen kontzientzia hartzea?

Haurrek hasieran emozioa senti-
tzen dute, baina ez dakite zer den senti-
tzen dutena, ez dakite esaten "amorrua
dut"; emozioen formatu linguistikoa
(kontzientea) garatzeke daukate. Hiz-
kuntzak bi funtzio garrantzitsu bete-
tzen ditu hor: lehenik eta behin, kon-
tzientzia hartzea. Ez baduzu kontzien-
tzia hartzen, ez duzu bulkada kontrola-
tzen, eta edozer egin zenezake. Kon-
tziente izateak erraztu egiten du egoera

ho-
ri au-
rre egitea,
energia hori
modu burutsuan era-
biltzea. Eta bestetik, emozioa izendatze
hutsak erlaxatu egiten zaitu, esateak
tentsioa deskargatu egiten du, eta or-
duan zaude zer egin pentsatzeko mo-
duan.

Kontzientzia hartzeko, zer egin irakasleak?

Haurrari erakutsi sentitzen duen
emozio hori aurpegiko espresioarekin
eta dagokion hitzarekin lotzen, eta gero
egoerari aurre egiten lagundu. Beti ez
gara kontzienteak, ezta helduok ere,
baina gaitasun hori indartzea oso osa-
suntsua da.

Zergatik eman zaio orain garrantzia adimen emozionalari?

Denbora askoan emozioak oso
prentsa txarra izan du eta inteligentzia-
ren aurkakotzat jo izan da. Arrazoiaren
aztoratzailetzat jotzen zen, patologikoa
zen kasik.

Gaur onartzen da emozioak oso
erabilgarriak direla, ingurura molda-
tzen laguntzen baitigute baita ezeroso-
ak zaizkigunek ere. Esaterako; beldu-
rra, tristura, amorrua, edo kulpa. Baina,
gainera, ikerketa eta esperientzia klini-
koak frogatu du pertsonak, izan hau-
rrak zein helduak, emozionalki konpe-
tenteak direnean (hau da, euren egoera
emozionalerik kontziente direnak, emo-
zioak ezagutzen eta ulertzen dituzte-
nak, horiei buruz hitz egiten dutenak,
besteen emozioekin enpatizatzen du-
tenak eta euren emozioak eta adieraz-
penak erregulatzeko gai direnak), on-

gizate afektibo eta sozial handiagoa
sentitzeaz gain, arrakasta gehiago dute-
la eskolan zein eremu profesionalean
eta, are gehiago, osasun hobea izaten
dutela. Aldiz, oraindik orain eremu ba-
tuetan emozioei beldurra zaiela naba-
ri da.

Eta zergatik diegu beldurra emozioei?

Guraso eta hezitzaile batzuk emo-
zioak arriskutsuak direla pentsatu ohi
dute, ahula bihurtzen zaituztela, sufria-
razi egiten dutela, edota haurraren ma-
nipulazio ahalegin bat direla, eta beraz,
emozioak lehenbailehen paretik ken-
tzea dela onena.

Nola? Haurra zerbaitegatik triste da-
torrenean, hitz egin beharrean gertatu
zaionaz, gurasoak entretenitu egiten
duenean, garrantzia kentzen dionean.
Edo irakaslearen kasuan, haur bat am-
rratuta dagoenean besteak burla egin
diolako, jo edo mespretxatu duelako,
esaten dionean "nahi gabe izan da, la-
gunak izan behar duzue".

Kasu horietan zer egin behar litzateke?

Emozioek beldurra ematen dute, ez
dakigulako nola egin aurre. Aldiz, gura-
soak eta irakasleak izugarri lasaitzen di-
ra eta lan handia egin dezakete kontu-
ratzen direnean pasarte emozional ho-
riek denak heziketarako aukera ezin
hobeak direla; egoera horien bidez era-
kutsiko baitiezu emozioen kontzien-
tzia hartzen, izendatzen, eta modu ego-
kituan aurre egiten tristorari, amorrua-
ri, inbidiari, kulpari edo bazterketari.

Eskolak zer funtzio bete behar du arloan emozionalean?

Haurrak berehala eramaten ditugu
eskolara. Gainera, ordu asko pasatzen
dituzte bertan, eta intentsitate handiz
bizi dituzten emozio asko eskolan ger-
tatu dira: lagunekin, irakasleekin, jo-
las orduan, gelan. Bestalde, heziketa
emozionala eskolan lantzen badugu,
eskola bera da hobera egiten duena,
gelako giroa izugarri hobetzen delako,
eta baita eskolako errendimendua ere.
Beti dikotomia gisa planteatzen da,

**“ Nesken
agresibitate
psikologikoa ere ez
dago onartzerik; ez
dute heinbeste jotzen,
baina harreman
agresibitatearen
indizea izugarria da.
Eta hori irakasleek
badakite, baina nola ez
den hainbeste ikusten,
apenas esku hartzen
den.**

“emozioak lantzeari denbora ematen badiogu, ez dugu matematikarako astirik”, eta kontrakoa da: lan horrek erraztuko du matematikatan ere gusturago egotea eta lan gehiago egitea.

Arazoa da irakasleak oso ondo prestatuta daudela nor bere diziplinan, baina ez hain beste emozioen alorrean. Gainera oraindik orain baliabideak falta dira, esku hartzeko proposamen baliotatuak falta dira, eta eskola sistemen arduradunek eta gurasoek gai hauek benetan zer garrantzia duten kontzientzia hartzea falta da.

Zer egin daiteke Haur Hezkuntzan garapen emozionalerako?

Lehenik eta behin, giro batsortu behar da haurra emozionalki seguru sentitzeko. Irakasleak haurrentzat atxikimenduko irudi behar du izan. Zer egin horretarako? Haurrari erantzun, ulertu, ukitu, aurpegira begiratu, denbora eskaini. Zure energia guztia horretan jarri, benetan inportantea hori delako, karratu eta hirukien fitxak egitea baino gehiago.

Behin haurra seguru sentitzen denean, orduan has gaitezke beste alor hauek lantzen: emozioen kontzientzia hartzea, sentitzen dutena izendatzen laguntzea; besteen emozioez jabetzea, nola espresatzen dituzten jabetzea eta ulertzea zergatik hunkitzen diren besteak; enpatia; edozerk ez duela balio ikastea, alegia, sentimendu guztiak zilegi direla (baita amorrua, inbidia edo jeloskortasuna ere), baina ez dela zilegi horregatik edozer gauza egitea; eta adimen emozionalean oso garrantzitsua den beste gauza bat, asebetetze unean atzeratzen irakastea.

Haur Hezkuntzan aipatu duzun hori guztia lantzeko, zer balia dezake irakasleak?

Eguneroko bizitza eta haur horien emozioak. Aprobetxatu mementoan sortzen den hori (haur eskolan haurrek oso sarri adierazten dituzte emozioak), esan beharrean “gaur beldurra landuko dugu”. Irakasleak badaki garai horretan zein diren haurren benetako kezkek; bada, hitz egin lasai horietaz,

eta ikusarazi beldur horiek, kezka horiek erabat normalak direla, denok ditugula.

Eguneroko bizitzan beste baliabide bat da gatazkak erabiltzea, borrokak, bazterketak eta, azken batean, sufri-menduaren edozein agerpen baliatzea gelan enpatia garatzeko eta bestearen lekuan jartzeko gaitasuna sakontzeko.

Bestetik, irakasleak balia dezake bere eredu izatea, emozioak nola adierazi eta horiei aurre nola egin erakusteko. Eredu den aldetik haurrei erakusten die berak nola adierazten duen poza, harrotasuna, amorrua; eta, irakasleak, gehiegikeriaz jokatzeko duenean (irakasleok ere batzuetan kontrola galdu egiten dugulako eta pasa egiten garelako), ikasten badu esaten “garrasi egin dizut eta barkatu, zeren haserretu naiteke eta ondo dago gainera haserretzea, baina horregatik ez dizut zertan garrasirik egin”; hori esaten ikasten badu, haurrei ematen dien lezioa izugarria da, barkamena eskatzen, kulpakudeatzen eta eragindako mina konpontzen irakasten baitie.

Ba al dago ekintza zehatzik hori dena lantzeko?

Bai, eta nahiz asko ez izan, gero eta errekurso didaktiko gehiago daude. Emozioak ezagutzeko jokoak, marrazkiak, eta abar daude. Gainera, bada funtsezko gauza bat: jolas sinbolikoa. Hori sustatzea da irakasleak egin dezakeen gauzarik handienetakoa. Jolas sinbolikoetan elkarrizketen % 99 gai emozionaleri buruz izaten dira (haurrek euren esperientzia emozionalak berbitzen dituzte). Bestearen lekuan jartzen dira, eta irudimen proiektiboaz euren sentimenduak bestearengan jartzen dituzte (bestea haserre dagoenaren papera egiten dute), eta emozio horiek erregulatzen dituzte. Hor sekulako eremua dago. Eta bestetik ipuinak ditugu: emozioak lantzeko ipuin oso onak daude egun.

Emozio asko ukatu egiten ditugu: “ez haserretu” esaten zaie haurrei, edo “ez duzu ahizpa jaio delako jeloskor egon behar”...



Eta nola ez da, bada, jeloskor egongo! Pentsa bikotea datorkizula esanez “begira, neska hau topatu dut, oso atsegina bera, eta etxean sartuko dugu, eta zuk asko-asko maite behar duzu”. Jeloskortasuna normala da. Eta amorrua, eta inbidia, eta urguilua. Egin behar dena ez da emozio horiek ukatu edo debekatu, baizik eta emoziook ulertzen eta erregulatzen lagundu.

Lehen Hezkuntzan, berriz, zein dira klabeak?

Lehen Hezkuntzan ere garrantzitsua da emozioak izendatzea, besteen emozioak ulertzea, enpatia agertzea eta zeure emozioak erregulatzea. Horretarako egoera naturalak baliatu daitezke (ikasle berri bat etorri izana, lagun arteko gatazkak eta abar), edo irakaslearen proposamenak bestela. Ipuiak egokiak dira adin honetan ere, edota filmatzea (izugarri gustatzen zaie, gainera): emoziozko egoera bat antzeztarazi (esaterako, haserre egoera), filmatu eta gero ikusi zer jarrera ez ziren egokiak eta zein izan daitezkeen alternatibak. Edota kaxa bat jarri gelan ikasleek euren kezkek bota ditzaten anonimoki, eta gero gai horiei buruz hitz egin. Adin honetan garrantzia har-

tzen duten gaiak hauek dira: bazterketa, lagun burla, autoestimua (soziala eta akademikoa).

Beste funtzio bat da emozio moralak (esaterako kulpa, lotsa edo urguilua) garatzea eta egoki baliatzea. Kulpa sentitzea ona da, eta sana da inork mina eragin duenean kulpa sentiaraztea (bestearen lekuan jarriaraziz, haren sufrimenduari enpatizatuz), eta funtsezkoa da kulpa erregulatzen, egindako kaltea konpontzen eta barkamena eskatzen irakastea. Uргуilua ere landu beharreko emozioa da; urguilua beharrezkoa da, eta haur denek dute harro sentitzeko eskubidea (bereziki gehiegi nabarmentzen ez direnek). Haur denek ematen dute nahiko motiborik, alor batean ez bada bestean, bere lana edo jarrera goraiatzeko. Arrakastagatik harro sentitzea klabea da barne-motibazioarako eta autoestimurako, eskola porrota saihesteko oinarrizkoak direnak.

Bigarren Hezkuntzan, zer?

Nerabegarorako proposamen gutxiago daude. Euren kezkek zein diren ikusetik eta lan erabilgarriago bat egitetik hasi behar da. Etapa honetako garapen ezaugarriak, erronka handien

eta emozioen orekarik ezaren iturri dira. Kideek onartuko ote dituzten kezkaz ari gara hizketan (talde presioak aurreko etapatan baino garrantzia handiago hartzen du), autoestimua gorabehereaz ari gara (gutxiti egiten da eta hauskorragoa da), gorputzaren autoirudiarekin dituzten zailtasunak (gutxi onartua), maitemintze eta maitasun porrotez, sexualitatearen eta orientatibitate sexualaren onarpenaz (beste ezein etapatan baino indartsuagoa dena), helduekiko anibalentzia harremanez (amorrua eta kulpa eragiten dutenak), bokazioz zein ideologikoki identitate bat garatzeko beharraz, eta abar.

Gai horietako batzuetan badira esku hartzeko proposamenak, balioztatuak daudenak (sexualitatean eta gatazken ebazpenean), eta talde tutoretzatan erabiltzen diren aktibitateak hor daude: egoerak asmatuz, antzeztuz eta gero aztertuz, filmak, irakurgaiak, ideia jasak, eztabaidak, eguneroko bizitzako kasuak...

Heziketa emozionalerako, irakasleentzat materialik edo erreferenterik ba al da hemen?

Gaztelaniaz orain hasi dira argitalpen batzuk ateratzen, aurrerago zitatzen ditudan bezalakoak (ikus “Gomendiozko irakurgaiak” atala, artikularen amaieran). Dena den, nahitaezkoa iruditzen zait irakasleek hasierako formazio bat izatea garapen emozionalen, behin hori jasota seguru bainago irakasleari nahi beste aktibitate bururatu tuko zaizkiola bere gelan gauzatzeko, berak ezagutzen duelako beste inork baino hobeto zein etapatan dauden bere ikasleak.

Zein da gurasoen funtzioa heziketa emozionalen?

Heziketaren ardura gurasoena da, eta ezin da eskolaren esku utzi. Semelabenen heziketa moralak zein emozionalak euren esku dago, eta horretaz oso kontziente egin behar ditugu. Haurrek emozioen kontzientzia hartzeko eta erregulatzeke zein arau moralak barnerratzeko bitarteko bat dute: gurasoen

**// Jolas
sinbolikoa sustatzea da
irakasleak egin
dezakeen gauzarik
handienetakoa. Jolas
sinbolikoetan
elkartrizketen %99 gai
emozionalei buruz
izaten dira. Bestearen
lekuan jartzen dira,
euren sentimenduak
proiektatzen dituzte,
emozioak erregulatzen
dituzte. Hor sekulako
eremua dago.**



atxikimenduak ematen diene segurtasuna. Heziketa emozionalean ere klabea gurasoak dira.

Emozioekiko jarreraren arabera, guraso askotarikoak daude. Haurren emozioei beldurra dien gurasoak emozioak minimizatzen ditu, eta entreteniarazi egiten du haurra. Autoritarioa goa den gurasoak pentsatuko du haurra bera manipulatu nahian dabilela, eta ez dio emozioa adierazten ere utziko. Beste estilo bat "laissez faire" ("utzi egiten") deritzona da, emozioak erabat askatu behar direla, iristen diren muturreraino askatu behar direla pentsatzen duten gurasoak. Nahiz eta hiru estilo horietan gurasoek euren asmo onenekin egin, ez diote garapen emozionalari onik egiten. Aldiz, seme-alabak emozionalki hezten dituzten gurasoek, halako egoera bakoitza haurrari bizitza emozionaleko gauzak erakusteko aukera polit gisan ulertzen dute: denbora eskaintzen diote, euren lekuan jartzen dira, haurren emozioekin enpatizatzen dute, izendatzen laguntzen diote eta egoerari aurre egiten. Kontua da gurasoek ere ikasi egin behar dugula, orain ari garelako alor emozionalean jokatzeko ikasten.

Harremanik ba al dago moralaren eta emozioen artean?

Bai, izugarria. Emozio moralak dira arguilua, kulpa, lotsa eta enpatia. Urganilua arauak betetzen dituen zerbait egin duzula eta norbaitek ikusten zaituela sentitzen duzunean sortzen da (norbait hori imajinarioa izan daiteke). Urganilua gozamenarekin lotutako sentsazioa da, eta arauak errespetatzen jarraitzeraz motibatzen zaitu. Lotsa, berriz, kontrako egoeran sortzen da: arauen kontrakoa egiten duzunean (barregarri geratzen zarenean). Eta kulpa sortzen da inorik egin eta pertsona hori sufritzen ari dela sentitzen duzunean (enpatia sentitzen duzu), eta zeure gain hartzen duzunean sufrimendu horren kausa. Kulpa eta lotsa sentsazio oso ezerosoak dira, prebentiboak dira, eta hurrengoan berriz halakorik ez sentitzeko ez ditugu arau moralak hautsiko

edo ez diogu inori minik egingo. Jokabide morala gehien erregulatzen dutenak emozio horiek dira, ezagutza morala baino are gehiago.

Agresibitatearen prebentziorako, beraz, oinarrizkoa da kulpa eta enpatia emozioak lantzea...

Hala da, beste zenbait gauzaren artean. Ze erasotzaileen arazo larrienetako bat da ez dutela biktimaren sufrimendua sentitzen, ez dakitela enpatia sentitzen, eta beraz kulparik ere ez dute sentitzen. Gerok unitate didaktiko batzuk sortu genituen, ondo funtzionatzen ari direnak, enpatia garatzeko, perspektiba hartzea, elkarlana zein gizakiaren irudi positiboa lantzeko. Diziplina inductiboa erabiltzeak ere sustatzen du enpatia eta enpatiazko kulpa.

Jokabide erasokorra duen haurrarekin, zer egin?

Lehenik eta behin aztertu haur horren agresibitatearen kausa zehatzak zein diren, eta lehenbailehen esku hartu, baina hori bai, ez utzi erasotzen. Haurrak ez dira bat-batean erasokor bihurtzen 8 edo 10 urterekin, haur eskolan jada ikusten zaizkie jokabide horiek. Haur bat erasokor egiten duten kausak asko dira. Hiperaktibitate arazo batetik eratorriak diren kasuak kenduta, nik uste haur erasokor baten atzean zera dagoela: edo haur oso triste eta oso mingostu bat, ez duelako behar adina maitasun eta arreta jasotzen, edota bestela heziketa eta jokabide kontrolaren arazo bat, biak ere familiaren eremuan. Diziplina kontrolari dagokionez, bai guraso oso autoritarioek (zigor fisiko erabiltzen dutenek), eta bai gehiegi uzten dutenek ere, haur erasokorrak sortzeko arriskua dute. Oso zaila da, ezinezkoa ez bada, zoriontsua den haurra eta emozionalki seguru dagoena erasokorra izatea.

Gelan haur erasotzaile bat baduzu, zer egin?

Zuzenean gurasoekin hitz egin, eta proposatu eskolan eta familian batera egiteko esku-hartze bat. Erasotzea ez



da zerbait normala eta ezta zerbait onargarria ere, zenbait gurasok eta irakasleek dion modura, “astokilo xamarra delako” edo “haurren kontuak direlako”; ezin da hain astokiloa izan, eta haur horri norbaitek esan beharko dio ezetz.

Eta nesken agresibitate psikologikoarekin, berdin; ez dute hainbeste josten, baina harreman agresibitatearen indizea izugarria da. Eta hori irakasleek badakite, nabarmena da neskek nola funtzionatzen duten (gai dira talde osoak neska bat bazter dezan lortzeko), baina nola ez den hainbeste ikusten, apenas esku hartzen den. Besteak sufritzen ikusita gozatzeko gustu hori, empatia duen haur batean desagertuko litzateke, kulpa sentituko bailuke.

Eta zer egin biktimarekin eta beste talde osoarekin?

Lehenik eta behin biktima defendatu, munduko zorrotzasun guztiarekin. “Matoien” beste jokabide oso sibilinoa baita, laguntza eskatzen duen biktima lotsagarri uztea. Bigarrenik, biktimek askotan trebetasun sozialak falta dituzte, dependiente xamarrek izaten dira.

Hor badago zer landua. Bestetik, erasotzaileak ez du erasoko, lagun talderik eduki ezean. Eta irakasleok hor esku hartu genezake asko: gainerako talde osoan Landu bazterketarekiko duten beldurra, landu lidergoa (lidergo mingarri bat apurtzera ere iritsi gaitezke helduok), landu giza eskubideak, empatia, pertsona ona izatearen abantailak, eta abar. Bizitza honetan morala izan behar dela, ezin dela edozer gauza onartu, hori da taldearekin landu behar dena. Batzuetan erasotzailearekin egin beharreko eskuartzean psikologo edo psikoterapeuta baten laguntza beharko da, baina gainerako ikasle guztiekin egin dezakezuna asko da.

Morala izatea, “zintzoa” izatea, gaur ez dago modan, “inozo” gisa hartzen da...

Egia da, eta niretzat horixe da gaur erakutsi behar den gauzarik garrantzitsuena: zintzoa izatea ona dela, eta mezezi duela benetan, ez dela sakrifizio bat (erlijio kristauak hori transmititzen digun arren). Alderantziz: zintzoa dena maitatuagoa da, harreman hobeak ditu, gusturago bizi da. Eta erakutsi behar

diegu jende gehiena ona dela, horixe baitasaltzen ari zaizkigun beste ereduak: gizartean jende gehienak min egiteko beldurrik ez duela, eta gehiengo berekoia dela. Eta ez da hala. Gehiengo ona dela pentsatzen duzunean, zerorri ere esku zabala zara, ez duzu beldurrik.

GOMENDIOZKO IRAKURGAIAK

-BISQUERRA, R.: *Educación emocional y bienestar*, Praxis, Barcelona, 2000.

-IBARROLA, Begoña: *Cuentos para sentir 1 eta 2 liburukiak*, S.M., Madril.

-HYSON, M.C.: *The emotional development of young children. Building an emotion-centered curriculum*, Teachers College Press, Londres, 1994.

-LÓPEZ RODRIGUEZ, F.: *Emociones y educación: Qué son y cómo intervenir desde la escuela*, 2003.

-ORTIZ BARÓN, M. J.: “El desarrollo emocional”, in LÓPEZ, F., ETXEBERRIA, I., FUENTES, M.J.; ORTIZ, M.J.: *Desarrollo afectivo y social*, Pirámide, Madril, 1999.

Lamiako Maskarada

Leioako auzo horretan maskarada berezia ospatzen da. Ikasleek Maskarada Txikia sortu dute.



Nieves SARATXAGA
LAMIako ESKOLAKO IRAKASLEA

Lamiako eskolan egiten dugun ekintza baten berri kontatu nahi dizuet: Lamiako Maskarada Txikia. Lamiako Leioako auzoa da, eta tradizio handiko maskarada ospatzen da urtero, maiatzaren azken ostiralean. Orain dela hiru urte, gure ikasleek ikasturte amaieran sorpresa bat eman nahi zigutela esan ziguten, eta guri ezer esan gabe, isilpean, beraien kabuz eta ekimenez, Lamiako Maskarada Txikia eskaini zigten. Geroztik, urtero ospatzen dugu jaialdia.



Lamiako Maskarada ez da Zuberoako maskaradak bezalakoa, ez eta hain ospetsua ere, zoritxarrez. Haatik, auzotarrantzat garrantzi itzela du, eta Euskal Herriko mitologian ere leku pribilegiatua du. Lamiakoko maskaradaren berezitasunetako bat izenak berak azaltzen digu. Lamiak dira pertsonaia nagusiak, protagonista nagusiak, eta horiekin batera, beste pertsonaia mitologiko ugari agertzen dira. Musika, dantzak eta mitoak, horiek denak nahastuta osatzen da gure maskarada.

Auzoaren izena bera ere hortik dator: Lamiako. Urte asko dituen ohitura edo tradizioa da maskarada ospatzea. Auzotar guztiak hartzen dute parte. Horrelako ohiturek bizirik jarrai dezaten, garrantzitsua izaten da zahar eta gazte, haur eta heldu, denek parte hartzea eta dantzak eta istorioak ikastea. Ez dakigu eskolako haurrek kezka hori

zuten edo ez, baina kontua da euren jaialdi txikia egitea bururatu zitzaieela.

Eskola txikia da gurea; 28 ikasle ditugu Haur Hezkuntzan, eta 29 Lehen Hezkuntzan. Horri esker, ikasleen arteko harremanak gertukoak dira, eta baita irakasleekikoak ere. Gertutasun handia dugu, eta ongi ezagutzen dugu elkar. "Gauza txiki bat egingo dizuegu", esanez etorri zitzaizkigun orain hiru urte ikasturte amaieran, eta izugarria egin ziguten. Ikasturte amaierako azken egunean maskarada antzeztu ziguten. Auzoan egiten den berdina, baina xumeago. Prestakuntza handirik gabe, baina intentzio osoz eta eskolako Lehen Hezkuntzako haur guzti-guztien partaidetzarekin.

Isilpean aritu ziren entseguak egin, elkarri erakusten, musika lortzen... Atsedendia baliatu zituzten pertsonaien banaketa egiteko, arropak

Guk, irakasleok, hainbat gauzatan laguntzen diegu, baina beraiek dira gidaritza daramatenak. Behar dutena eskatzen dute eta horretan laguntzen diegu, horretara mugatzen gara. Gainerakoa eurek egiten dute: antolaketa, entseguak...

biltzeko, maskarak egiteko, dantzak ikasteko eta abar. Irakasleok txundituta gelditu ginen auzoan euskal mitologiak zuen tradizioa gure ikasleek bereganatu zutela ikusitakoan.

Jarraipena eman diogu

Horrelako ilusioarekin egindako lanari jarraipena eman behar zaio, horretan dudarik ez genuen, eta ikasleei urtero jaialdia egiten laguntzeko erabakia hartu genuen. Asmo horrekin, geroztik gauzak hobetzen eta osatzen joan gara.

Auzoko Maskaradako kideekin harremanetan jarri ginen eta maskarak eta mozorro batzuk utzi zizkiguten. Arropak bilatzen eta prestatzen laguntzen diegu guk, eta irakasle batzuek antzezlanean parte hartzen dute.

Iaz Maskaradaren aurkezpena, azalpen testuak, doinuak eta musika CD batean grabatu genituen, eta megafoniaren bitartez entzun ahal izan zen emanaldiaren unean. Horrek asko lagundu zuen ulertzen.

Leioako gainerako ikastetxeetako ikasleak gonbidatu genituen, eta azken dantzan, lamia dantzan, denek hartu zuten parte. Auzotarrak ere harro sentitzen dira haurrek egiten duten jaialdiarekin, eta gainera, badakite horrek auzoko Maskaradari jarraipena emango



diola eta haur horiek han ere parte hartuko dutela. Hitz batean esanda, tradizioari eutsi egingo zaiola.

Lamiako Maskarada

1. zatia

Maskaradaren lehen zatian, dantza eta musika artean, pertsonaiak agertzen eta aurkezten dira pixkana.

Nagusiak lamiak dira, emakumeen gorputza eta ahate hankak dituzten pertsonaiak. Ura atsegin zaie eta haren zurrumurruek abestera bultzatzen ditu, beren adats luzeak orrazten dituzten bitartean.

Mari emakumezko jeinu nagusia da. Lurraren barnealdean bizi ohi da. Haren ikurra igitaia da, eta tximistaren aurka babesten du.

Sugar erdi suge erdi gizon itxura duen jeinua da. Mariren senarra omen da eta ostiralero elkartzen dira, Sugarrek Mari orrazteko.

Aker itxuraz azaltzen den jeinua da Aker. Sorginarekin dantzatzen da.

Sorgin kobazuloetan bizi ohi den gaueko jeinua da. Mariren menpe dago.

Ieltsu sua darion jeinua da eta txori itxura du. Bat-batean agertzen da, eta beldurra eragiten du.

Galtzagorri edo deabrua gizakiei kalte eragiten dien espiritu gaizkilea dugu.

Inguma jeinu gaiztoa etxeetan azaltzen da gauez lotan gaudenean.

Horiekin batera, hainbat jainko daude:

Mendi: oihartzunari dagokion jeinua.

Gau: hilen espiritu eta arimei dagoena.

Ilazki: hildakoen arimak argitzen dituen.

Eguzki: lurraren magalean dagoena.

Lur: Eguzkiren eta Ilargiren ama.

Elur: ondasunen jainkoa.

Su: gaizkileengandik babesten dituen etxeko biztanleak.

Oinaztari: ekaitzaren jainkoa.

Ur: gauez espiritu gaizkileen menpean dagoena.

Haize: hodeiak mugitzen dituen.

Hasieran, Maiatz pertsonaia agertzen da "maiatza" oihukatuz, eta Marik Sugarrekin "udaberri dantza" dantzatzen du. Hirurak elkarri eskutik helduta lamiak dauden lekura joaten dira. Lamiak eta Sugarrek "lamia dantza" egiten dute.

Elkarri eskutik helduta Galtzagorri Mendirekin borrokatzen den lekura doaz. Ondoren, jainkoengana hurbiltzen dira, eta haiek "ingurutxo" dantzatzen dute.

Inguma dagoen lekura hurbiltzen dira eta hark "arku dantza" egiten du Marirekin.

Berriro elkarri eskutik helduta, Sorginengana doaz. Marik eta biek "sorgin dantza" dantzatzen dute.

Eskutik helduta Akerrengana doaz, eta hark "lamia dantza" egiten du lamiakin.

Gero Ieltsurengana doaz, eta hark Marirekin "soka dantza" egiten du.

Pertsonaia guztiak bilduta daudelarik bukatzen da lehen zatia.

Bitartean, Prudentzia jende artean dabil, semea non dagoen galdezka.



2. zatia

Prudentziaren istorioa kontatzen da zati honetan.

Kondairak dioenez, XVII. mendearen hasieran Berriz mendian Prudentzia bizi zen, eta ondoko baserri batean, Martin. Laiatzeko garaian lanerako elkartzen ziren, eta hortik maitasuna sortu zen. Ezkondu egin ziren. Prudentzia haurdun zegoela, Martin gaztainondo batetik erori eta hil egin zen. Handik bi hilabetera euren semea jaio zen: Inazio. Prudentziak, ahaleginak eginez, semea hazi zuen eta gurasoen tradizioari jarraitzea saiatu zen, hots, lurra lantzeari. Baina soroen jabe izateko adina zueanean, dena saldu eta itsasoratu egin zen, hura baitzen haren ilusiorik handiena.

Prudentzia triste geratu zen, zerumugari begira semearen ontzia desagertu arte. Arratsalde batean Berriz mendian zegoelarik, itsasontzi zuri bat ikusi zuen. Orduan, korrika basoa eta padura zeharkatuz, ontziaren bila joan zen. Txalupa ondora iritsi zenean, garrasi mingarri bat eginez lurrera erori zen. Ez zen Inazioaren txalupa. Ahal zuen moduan etxera iristen saiatu zen, eta Ondizko paduretan hil zen. Memento horretan lamien kantua entzun zen, eta Prudentzia lamia bihurtu zela esaten da. Kantu goxo hori mendihorien semea itsasoratzen denean entzuna da. Geroztik Ondizko padurei Lamiaiko Hondartza izena ematen zaie, eta hortik dator gure auzoaren izena.

3. zatia

Sugarrek lamiei deitzen die, eta haiek lamien abestia kantatzen duten bitartean, Prudentzia inguratzen dute eta emakumea lamia bihurtzen da.

Lamiek "lamia dantza" egiten dute. Txalaparta entzuten da, eta makilak baten dituzte denek. Ondoren, Maiatz ateratzen da "maiatz" oihukatuz eta irrintziak botaz.

Ieltsu zuzi batekin agertzen da, eta hirugarren irrintzian sua pizten du bildutako makilekin. Kanpaiak jotzen dira eta apaiza agertzen da jentilei deitzen.

Txalaparta joz Mari igo egiten dute. Ieltsu altxa egiten da, eta zera esaten du:
- Hau gure herria da, gure bizitza eta gure ohiturak. Altxa denok!

Denak altxatzen dira eta musikaren

laguntzaz suaren gainetik salto egiten dute.

Amaitzeko, pertsonaia guztiek "lamia dantza" egiten dute eta ikusleak ere gonbidatzen dituzte. •



Haur Hezkuntzako profil profesionaleri buruz



Cristina ELORZA

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEKO KIDEA

Gizartean nabari diren aldaketek eskakizun berriak planteatzen dizkiote eskola instituzioari. Zein dira Mendebaldeko egungo gizartearen ezaugarriak? Informazio eta komunikazio teknologiak, kolektiboen eta herrien arteko harremanak, norberaren hizkuntzak menperatzeak eta atzerriko hizkuntzak ezagun izateak duen garrantzia, migrazio mugimenduak, edota haurtzarari buruzko kontzepzioa dira kontuan hartu behar direnak, kalitatezko hezkuntza eskaintza bat definitzeko orduan. Aldiz, ezin da definitu eskola bat Mendebaldeko gure gizartearen beharrei erantzungo diena, saiatu gabe aberastasunaren banaketa bidegabea gainditzeko eta gizarte solidario bat eraikitzeko konpromisoa lortu gabe.



Gizarteak bizi dituen aldaketen zati funtsezkotzat hartu behar dira familiak berak ere bizi dituen aldaketak. Ulrich eta Elisabeth Beck-en hitzetan, "merkatuko subjektua, azken-azkenean, norbanako ezkongabea da, maitasun, ezkontza edo familia harremanek 'zangotrabatu' gabea. Merkatuko gizartea azkeneraino eramanda, beraz, *haurrik gabeko* gizartea litzateke, non eta haurrak ez diren hazten aita eta ama ezkongabeekin, hara-hona ibiltzen direnekin". Eskolan nabari da bikoterik gabeko emakumeen edo amen presentzia, bananduta bizi diren familiak edota berregindako familiak, guraso bakarrek familiak, nazioarteko adopzioetatik datozen haur euskaldunak, familiarekin immigratu duten neskatilak, desegituratutako familietan bizi diren mutikoak, edota arrazoi ekonomiko, sozial zein kulturalengatik bazter-

tzeko arriskuan dauden familietan bizi direnak.

Lan mugikortasunak, lagunduriko ugalketa teknika berriek, emakumea etxetik kanpoko lan mundura sartzeak, horrek denak eragiten du emakumeek haur gutxiago eta adinean aurrerago joanda edukitzea, semea errege tirano bihurtzeko tentazioan eroriz. Gainera, arrakasta pertsonalaz gehiegi kezkatzen den gizarte honetan, gaixotasunarekiko eta zahartzarorekiko jarrera txarrak sortzen dira, belaunaldi ezberdinetako senideen artean harreman falta ekar dezaketenak. Amonengana apenas jotzen den honetan eta oinordeko gazteak zalantzen erantzun bila dabilzan honetan, hezkuntza eskaintza lokarri pertsonalak hobetzeko eta elkarkidetzen sareari bultzada emateko lanetan murgilduta dago.

Eskolaren funtzioa gaurko gizartean

Gaurko gizarteaz eta eraiki nahi den gizarteaz egindako analisiaren fruitu, haur eskola definitzeko proiektuak sortzen dira. LOGSEk Haur Hezkuntza derrigorrezkoa ez den heziketa etapa gisa definitzen zuen. Hamabost urte beranduago araudi berriak argitaratzen ari dira, txikienen heziketa eskaerari administrazioek ematen dioten erantzuna izango direnak.

Haur Hezkuntza familientzat derrigorrezkoa ez den etapa da, baina 2 urte-tik aurrera oso orokortua dago Euskal Autonomia Erkidegoan. 3 eta 6 urte bitarteko biztanleria ia % 100 dago eskolatua, 700 zentro inguruk erantzuten die 3 urtez beherako 26.600 haurri. Hezkuntza faktoreek, gizarte faktoreek eta sareen arteko kompetenziak indartu egin dute eskolatzearen hedapen hori, lehen haurtzaroari eta euren familiei zuzentzen zaien arreta eskaintza bakar modura.

Kontuan hartzeko beste alor bat da nekazaritzaguneetan edota herri txikietan bizi den biztanleriak baliabideetara iristeko zer aukera duen. Euskal Autonomia Erkidegoan arazo larririk ez dago komunikazio bitartekoetan, baina nahitaezkoa da ziurtatzea herri txiki batean bizitzeko aukera egiteak ez duela esan nahi baliabide gutxiago edo kalitate eskasagoak edukitzea. Herri horiei zuzendutako hezkuntza eskaintza, inplikaturako kolektiboek definitu behar dute, euren behar eta eskaeren neurriara eginez, euren ezaugarrietara egokituz, malgutasuna edukiz hobekuntzak sartzeko eta ez, ordea, baliabideak mozteko.

Zein dira Haur Hezkuntzako irakasleen funtzioak eta egitekoak?

Gaur eskoletatik asko espero da. Hezitzaileek prestigioa galdu dute azken hamarkadotan eta, aldiz, eskolari gero eta gauza gehiago eskatzen zaizkio. Lehen eskolak ezagutzak transmititzen zituen eta hezteko familiari zego-kion; gaur exijitzen zaio baliokoak susta-



ditzala,
ohiturak

erakuts ditzala, jokabide zuzenak eta abar, eta hori dena kontzientzia etikorekin, ingurumenarekiko errespetuz, sexu diskriminazioa zein kontsumismoa gaindituz. Haur eskolako pertsonen ardura dutenei eskatzen zaizkien egitekoak, beraz, asko eta mota guztietakoak dira. Eskolan irakastea eta hezteko espero da, eta gainera espero da zaintzari buruz, haurraren hazte prozesua laguntzeko moduei buruz erreferentzia koherenteak ematea. Familiek euren hezteko ardura eskolarekin partekatzen dute, eta neska-mutilek eskolan bizi dituzte talde bizitzako esperientzia oinarritzkoenak, bai lotura afektiboak finkatze aldetik, eta baita jada familia eremu pribatukoak soilik ez diren bestelako egoera batzuei dagokienaz ere, esaterako jatea, atsedean hartzea, lo egitea. Hala, Haur Hezkuntzako irakasleen funtzioak konplikatu egiten dira eta, Vicenç Arnaizek idatzitakoaren arabera, "hezkuntza pertsona bakoitzaren gaitasunen garapenerako prozesutzat ulertzen dutenentzat, heldua ez da jakintza eredu eta imitatu beharreko eredu, baizik eta inguruaren antolatzaile, 'haurraren garapena sustatu ahal izateko eta haurrak esanahi kulturalak eraikitzea bultzatu ahal izateko'. Ikuspegi horretatik irakaslea ikaslearekin etengabeko elkarrekintzan ari da, batetik bere mailara egokituz, eta bestetik helduak planifikatu dituen intenzionalitateetara eramanez".

Funtzio horiek dakartena hau da: hezitzaileek harreman estuak sortu beharra ez soilik ikasleekin, baita ere eu-

Zaintzen ari diren pertsona horiek, nork zaintzen ditu? Haur txikiak hezitzeko ardura dutenek beren lana baliosten dela ikusi behar dute, eta baliabideak eskura izan behar dituzte egoera berezietan edota pertsonalki gogorak direnei erantzuteko.

ren familia arduradunekin, eta halaber gure gizartean elkarbizitza hobetzeaz arduratzen diren beste erakunde zein hurbileko antolamendu sareekin. Gainera, eskolak bere funtzio hezitzailea beste eragile batzuekin ere partekatzen du; esaterako, kultur animazioko edo aisialdiaren gestiorako ekimenekin, eta eragile horiekin esku-hartzeko eta laguntza trukerako oinarritzko irizpideak zehaztu egin behar dira.

Hezkuntza administrazioek txikien beharrei erantzuna emateko gainerako administrazioekin koordinatu behar dute, era berean, 6 urtez beherako haurrekin (izan eskola edo beste ezaugarri batzuetako gune bat) egiten den hezkuntza esku-hartzerako helburuak eta curriculumak ezartzen dituzten araudiak ere beharrezkoak dira.

Haur eskolari dagokio familiagunetik gune kolektibo hezitzaile batera igarotze hori erraztea. Eskolatze goiztiarraren prozesuak mimo handiz planifikatu behar dira, eskolako lehen esperientzia hori aberasgarria izango dela ziurtatzeko, hein berean ziklo, etapa edo hezkuntza zerbitzuen arteko segida bermatuz. Komeniko litzateke hezkuntza funtzio antzekoak burutzen dituzten pertsonen titulazio eta soldata bera edukitzera jotzea. Zentro bereko profesionalen arteko koordinazioa, eta baita derrigorrezko hezkuntzako zen-

troen artekoa ere nahitaezkoa da hezkuntza esku-hartze koherente bat ziurtatzeko.

Irakasleek zer gaitasun, zer teknika eta estrategia garatu behar dituzte Haur Hezkuntzan?

Entzuteko gaitasuna funtsezkoa da. Entzutea, behatzea, itxaroten jakitea, galdetzen eta erantzun irekiak ematen jakitea ezinbestekoa da haur eskolan hezkuntza esku-hartzea diseinatzeko. Besteekiko, ezberdina denarekiko errespetua, aurreiritziak eta ideia estereotipatuak saihestea, haur bakoitzarengandik, familia zein lankide bakoitzarengandik ahal den guztia itxarotea, heterogeneotasuna aberastasun iturritzat hartzea, elkarriketa eta inguruko elementuek eskolako bizitzan parte hartzea sustatzea estrategia bihur daitezke, berdintasunezko eskola integraztaile bat lortzeko.

Etorkizuneko profesionalei baliabideak bideratzea ere nahitaezkoa da, gelan euren praktikaren protagonista izan daitezen, hausnarketa kritikoa eta ikerketaren bidez. Concha Sanchezek dioenez, ikerketak "kritika sustatzen du, irakasleak euren praktikaren ikerle bihurtzen baitira, besteekiko eztabaidaren bidez, eta horrek esan nahi du gero eta kontzientzia gehiago hartuz ekintza eta interpretazioetan norberak dituen esanahi ideologikoez lan egitea, eta baita esanahiok norabide komunikatibo baterantz eraldatzeko konpro-

misoa hartzea ere ("komunikatibo" hitzari Habermasek ematen dion zentzuan), hala, parte hartzeko espazioak sortzeko eta menpeko harremanen kontra, bazterketaren kontra zein bestelako injustizia sozialen kontra borrokatu ahal izateko".

Garrantzitsua da, halaber, irakasleak prestakuntzako proiektu pertsonal batean parte hartzea ere. Bere prestakuntzan zer hutsune dituen detektatzea, edota taldean erabakitzea zein diren ikertu edo aztertu beharreko gakoak, horiek dira partekatutako kultura profesional bat eratzen duten pausoak, eskola bere inguru sozialean integrazten laguntzen dutenak.

Garrantzitsua da talde bateko partaide zarea jakitea, ontzi bereko kide, non garbi ezagutu behar den zein norabidetan egin arraun portura iristeko eta nor dituzun bidaia lagun. Zentroko antolamendutik datozen ardurak talde osoak hartu behar ditu bere gain, lidergoa gauzatzeko gaitasuna duen zuzendaritza batekin, lana eta elkarlana erraztuko duena. Adostutako dokumentuak sortzea (zentroko proiektuak, zentroko barne dokumentazioa, familiari banatzen zaiona edo horma iruditan jartzen dena zein topaketa profesionaletan azaltzen dena) bereziki zaindu behar da eta lan taldeari oinarriak eskaini behar zaizkio bere eguneroko esku-hartzea koherentea izan dadin. Eguneroko jarduerak diseinatzekoan, lan taldeak jolas kooperatiboaren proposamenetara jo dezake, pentsa-

tzen eta elkarriketan parte hartzen ikasteko materialetara, elkarbizitzen irakasteko eta adostutako irizpide metodologikoak ezartzeko. Guztion egitekoa da barrutik bizkarrezurra sendo duen eskola bat osatzea: koordinazioa aberastea, irakasle zein ikasleen abildade sozialak zaintzea eta heziketa ekintza koherente bat definitzea. Lan taldeak irakasle espezialistak baditu (hizkuntzatakoak, esaterako) garrantzitsua da hori



taldeari aberastasuna ematen dion elementu bat izatea, hala, koordinatu gabeko lana saihestuz, baita ere zentzua falta duten esku-hartze puntualak.

Hainbeste exijentzia dituen profil honen aurrean, ezin ahaztu irakasleentzat laguntza bilatzeak duen garrantzia. Zaintzen ari diren pertsona horiek, nork zaintzen ditu? Haur txikiak hezteko ardura dutenek beren lana balioesten dela ikusi behar dute, eta baliabideak eskura izan behar dituzte egoera bereziei edota pertsonalki gogorrek direnei erantzuteko.

Zer edukik egon behar lukete Haur Hezkuntzako irakasleen prestakuntzan?

Idea bat kendu behar dugu burutik: Haur Hezkuntzako edukiak "lehen mailakoak bezalakoak direla, baina maila xumeagoan landuta". Lehen urteetan egin beharreko hezkuntza esku-hartzean, nukleoa zer alderdik osatzen



duten hautatu behar dugu, kontu handiz. Horien artean ahaztu behar ez direnak, honako hauek dira: hizkuntzaren jabeakuntza eta garapen prozesuak komunitate elebidunean, atzerriko hizkuntza sartzeari eta etaparen amaieran, atxikimendu loturak eta segurtasun afektiboak eraikitzea, kultura anitzekiko errespetua, eskola bakoitzean presente dauden hizkuntzen oinarriko ezagutza, familiekiko harremana, oinarriko kultur baliabideen ikaskuntza (matematikak, irakurketa, idazketa), espresiorako baliabideak erabiltzea (keinu bidezkoak, gorputz espresioak, ikusmenekoak, plastikoak) eta komunikazio teknologietarako sarbidea eskaintzea. Eduki horiek guztiak modu sortzailean eta serioan landu daitezke, aztertzen bada zein diren txikienen ezaugarriak eta berarentzat pentsatutako metodologiak. Lehen zikloko haurrek mundua ezagutzeko duten modura hurbilduz, euren keinu, behar, galdera eta algaretara hurbilduz ordena daitezke edukiak, eguneroko eskuhartzea artikulatuko dutelarik. Jerome Brunerren hitzak izan daitezke abiapuntu: “edozein gai irakatsi dakioko edozein adinetako edozein haurri, modu zintzo batean”.

Hasierako prestakuntza osatuko duten kontzeptuak, prozedurak eta jarduerak bideratu behar dira, sustatu ditzen talde lanerako gaitasuna, ardurak hartzea, informazio kanalak zabalik izateko gaitasuna eta prestakuntza beharrak eraginkorki asetzeko ahalmena. Unibertsitateak, era berean, zentroen antolamendurako baliabideak erraztu behar ditu curriculumaren eta metodologiaren arlotik, eta hezkuntza komunitateko kide guztiek eskolan parte har dezaten bultzatu behar du. Ezagutza klabe bat, gaur, informazioa bilatzea eta hautatzea da. Haur Hezkuntzako irakasleak profesionalki hazi egingo dira jakiten badute inguru sozio-ekonomikoan kokatzen, eta talderik badute, bertan parte hartuz euren burua formatzeko eta gizartea kritikoki aztertzeko.

Ordea, irakasleen hasierako presta-

kuntza ezin da diseinatu kontuan izan gabe gaur etengabeko prestakuntzak hartu duen indarra. Miguel Angel Zabalza dioenaren arabera, “zirkunstantzia eta faktore asko medio bizitza pertsonal, sozial eta laboral berri baten eszenategian gaude, eta horrek gure helburuak eta horiek lortzeko baliabideak etengabe berregokitzera behartzen gaitu. Azkenean, etengabeko prestakuntza nahitaezko prozesu bilakatu da, eta atzera bueltarik ez duena. Zentzu horretan, ezagutza eta etengabeko hobekuntzarekiko presioa, tradizionalki eskola “espirituari” lotua zena, egun askoz lotuago dago eskola instituzioz kanpo sortzen diren eta zentzua handuten faktoreei, “gure garaiko kultura” deritzan eremu orokorreko parte diren faktoreei. Gainera, faktore horietara egokitzeko unibertsitateak zailtasunak izaten ditu maiz edota, besterik gabe, bete-betean egokitzeko uzkur azaltzen da”.

Geroz eta gehiago eskatzen zaio eskolari haziera orientabideak emateko eta oso positiboa litzateke inguruko autonomia erkidegoetan jada martxan diren eskaintzak ezagutzea (txikienentzat eta euren familientzat diseinatuak) eta prestakuntza lokarriak finkatzea. Haur hezitzaileentzat etorkizuneko beste alternatiba batzuk pentsa daitezke, hala nola emakumeei haurdunaldian eta erditu ostean prestakuntza es-

kaintzea, osasun zerbitzuekin koordinatuta.

Ez dezakegu ahantz familia etorkinetako haurren ezaugarriak ikertzeko dagoen beharra, eskolan euren presentzia erritmo geldiezinan ugartu baita azken bost urteotan, eta horrek haur-narketarako zein hiritarren eskubideei eman beharreko erantzunak diseinatzekeo guneak sortzea exijitzen du. •

AIPATUTAKO LIBURUAK

- SÁNCHEZ BLANCO, Concha: *De la educación infantil y su crítica: reforma, investigación e innovación y formación del profesorado*, Sevilla, MCEP, 2001.

- ZABALZA, Miguel Angel: *La enseñanza universitaria. El escenario y sus protagonistas*, Narcea, Madril, 2002.

- BECK, Ulrich; BECK-GERNSEHEIM, Elisabeth: *El normal Caos del Amor*, El Roure, Bartzelona, 1998.

- ARNAIZ, Vicenç: “La seguridad emocional en la Educación Infantil”, in *Educación Infantil. Orientaciones y Recursos (0-6 años)*. Koordinatzaileak: Montserrat Antón eta Blanca Moll. Cisspraxis, Bartzelona, 2001.

- BRUNER, Jerome: *La educación, puerta de la cultura*, Visor, Madril, 1997.





www.hikhasi.com



Berriak . Materialen salmenta . Udako
topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .

Eskolaren eta familiaren arteko erlazioa eta kolaborazioa funtsezkoak dira, baina ez da beti erraza izaten. Nola lortu ahalik eta harremanik egokiena



Erlazioa eta kolaborazioa. Betirako den gai bat ukitu dugu hor: erlazioak. Nire ustez, horretan datza ia-ia beste guztia eta horixe da zailena guztiontzat. Irakasle gisa, gurasoekiko ditugun erlazio motak zailak ala errazak dira? Eta anai-arreben arteko erlazioak? Lagunekiko erlazioak? Lankideekiko erlazioak? Bikotearekiko erlazioak?... Nolakoak dira? Eguneroko harremanak batzuetan izan daitezke ez errazak, jartzen garen lekuan jartzen garena. Eta noski, erlazioak errazak ez direnean, eta kontuan hartuta batetik familia oso instituzio konplexua dela, eta bestetik eskola ere, instituzio bezala, oso konplexua dela, bada horrek ez ditu erlazioak errazten.

Bizitzeko erlazio txarrak sortzen baditugu, arazoak ere izango ditugu. Niri oso zaila egingo litzaidake zurekin kolaboratzea erlazio txarrak baldin baditugu.

Kolaborazioa. Dena dela, ez dakit denok ulertzen ote dugun zer den kolaborazioa edo kolaboratzea. Batzuetan iruditzen zait pentsatzen dugula gure ideia besteari sartzea eta hark onartzea dela kolaboratzea. Askotan pentsatzen



Mariaje URANGA

PSIKOMOTRIZISTA, FAMILIA TERAPEUTA
ETA IRAKASKUNTZAN DABILENA

dugure ideia hoberena dela, besteak ere hala uste behar duela, eta gurekin lanean jartzen ez bada, ez duela kolaboratzen diogu. Ez dakit ez ote dugun pazientzia gutxi hartzen besteari entzuteko. Horren ordez gure ideia sartu beharrean aritzen gara, eta gainera, gero besteak ez duela kolaboratzen ere esaten da batzuetan.

Askotan eskolan ez da denborarik hartzen familiarekin kolaboratzeko eta familiarekin egon aurretik bilera prestatzeko. Hori dena ordutegitik kanpo

gelditzen da gehienetan. Kasu horietan, familiarekin egotea lan estra bihurtzen da. Eta egotea ez da seme-alabak Matematikan ongi egin duela eta Natur Zientzian ez esatea. Ez da hori. Hori ez da bestearikiko erlazio bat hastea eta kolaboraziorako bide bat urratzen hastea.

Beste alde batetik, nik nahiko maiz ikusi dudana da familiak eskolari beldurra diola, eta eskolak zenbait familiar ere beldurra diola. Bi aldeetatik, bi instituzioetatik aurkezten dira halako kezka. Irakasleek pentsatu ohi dute: Zer esango ote dit? Zer exijituko ote dit? Nola azalduko dut nik baliagarria naitzela beren seme-alabentzat, hala naizela egia izanda? Eta familien aldetik berdin; zer esango ote digute?, zer ikusiko ote digute? galdetzen da eskolara joatean. Epaitze bat egoten da eta horrek beti beldurra ematen du. Zenbait familia beldurrez josita eta defentsan jarrita joaten dira sarritan irakaslearengana eta egoera horretan ez dira egokiak ez galdetzeko erak eta ezta erantzutekoak ere. Defentsak jarrita dator familia eta defentsan jarrita dago eskola. Askotan defentsa horiek erabat inkontzientek

Eskolaren eta familiaren arteko banaketa ez da errealia. Nolabait familia zabal bat garela esango nuke, helburu komun batekin: neska-mutilak aurrera ateratzea.

izaten dira, ez dugu jakiten zergatik gauden horrela. Beraz, hor arazo handi samarra dugu denok.

Familien konplexutasunaren eta aniztasunaren aurrean

Oso zabala eta konplexuak dira erlazio, komunikazio eta kolaborazio kontuak. Eta konplexutasun horretan, gaur egun familia mota ugariarekin egiten dugu topo. Familia moten aniztasun horrek aberastu egiten du, baina zaildu ere bai. Irakasle modura, aniztasun hori onartzen eta aurreiritzirik gabe ikusten jakin behar dugu eta hor dago gakoa. Izan ere, gutako bakoitzak geure istorioaren arabera ikuspuntua dugu eta zaila da hortik ateratzea. Hori hor dago. Dibortziatutako familia batekin baldin banago, ni neu ere dibortziatua baldin banaiz eta nire dibortzioa kaos bat izan baldin bada, nola aurkeztuko naiz familia horren aurrean? Nire familian istiluak sortu aurretik alde egiteko joera egon bada eta balio hori erakutsi baldin bazait, nire aurrean daukadan familiarekin gauza bera egingo dut; istilua sortu baino lehen beste aldera begiratu.

Aurreiritziek orokortzeko joera ere izaten dute, eta ahaztu egiten dugu familia bakoitza desberdina dela. Orain dela urte batzuk ama ezkongabeak seme edo alaba batekin eskolatzen zirenean alarguna, haurra nahi gabe izan zuena eta dibortziatua izan ohi ziren.

Hiru kasu desberdin dira, baina halako aurreiritzi edo "pre" bat jartzen genien horien haurrei: edo super babestua izango da haurra (eta ez genuen esaten "ote") edo aurreratuegia. Bi horiek, ez zegoen besterik. Eta bi alargun haur banarekin erabat desberdinak dira. Beraz, nik ere desberdin kokatu beharko dut horien aurrean.

Ez da ahaztu behar ez daudela bi familia berdin. Eta bakoitzak memento desberdinak bizitzen ditu. Eta krisialdi handiak. Eskolak ere bai, krisialdi handiak ditu.

Pentsa zenbat rol desberdin betetzenduz garen! Ama, aita, profesional, bikotekide, maitale, lagun, lankide, bizilagun... gara aldi berean, eta horrek faktura pasatzen digu nahitaez. Zenbait mementotan nik ama gisa, profesional gisa, bikoteko partaide gisa, ezingo ditut zenbait gauza egin. Eta nozitu, nork nozitzen du? Neska-mutilek, ahulenak direnek. Orduan, hori asumitu egin behar dugu. Ni ezin naiz hain irakasle ona izan, ezingo dut egin garai batean 15ekin egiten nuena orain 25ekin. Ezingo dut ez dakit zenbat gauzatan espezialista izan, ama eta aitak ezingo duten bezala ez dakit zenbat gauza egin garai batean bezala. Garai batean amona edo ama beti zegoen etxean. Ni gogoratzen naiz amonarengana joatea zer zen. Hark entzun egiten zizun, begiratu egiten zizun, hura zegoen ondoan. Hori erabat aldatu da. Ez da hobeia edo txarragoa, desberdina baizik. Agian, orain, gure bilobek aldamenen makinan bat eduki beharko dute.

Gaur egun aitak eta amak biek lana egin behar dute. Hala nahi dugu, sinesten dugu edo hala da. Eguerdian seme-alaba etxera etortzen denean bakarrik dago eta telebista du lagungarri. Ikasi edo irakurri egin beharo luke, edo erlazio bat eduki, baina hori ezinezkoa da. Gero, gauean gurasoak etortzen direnean, telebista ikusten jarraituko du, eguerdian lagun izan den hori gauean ere hor izango da. Zergatik? Gurasoak beteta, nekatuta etorri direlako eta hurrengo egunean goiz altxa behar delako.

Hori etxeetan geratzen den bezala, eskolan ere gauza bera. Gai asko ukitzen dira eta ukitu beharrekoak dira, gainera. Baina zenbateraino ukitzen da familiarekin izan beharreko harremana? Nola hurbildu familiarengana? Nola prestatu eta zenbat denboran familiarekin izan beharreko bilera erlazioak sortzeko edo hobetzeko, komunikazioa bideratzeko eta gero kolaborazioa izateko?

Eskolaren esku uztearen mugak

Errealitate horretan kokaturik, gaur egun familiak heziketa kontuetan gehiegi jarrita daukate irakasleengan, eskolan. Utzikeria dago? Behin eta berriari gara esaten, aspertzen ere hasiak gaude, eskolak bakarrik ezin duela hezi. Hezitzen du, baina neurri batean soilik, beste zatia familiak egin behar du. Nahiz eta irakasleei iruditu familiak ez duela nahikoa egiten, familiak ere gauza bera pentsatzen du, eskolak ez duela nahikoa egiten. Hori garai batean neurri batean ematen zen, eta gaur egun beste neurri batean.

Sarritan aipatzen da gizartea ere. Baina zein da gizartea? Gizartea ni neu naiz. Familia ni neu naiz. Ni naiz emakume ezkongabe bat, adopzio bat, desagindako familia bat... Ni neu nago denean ama gisa, profesional gisa, lagun

Nik uste dut gaur egun irakasleei eskatzen zaiena ezinezkoa dela, ezin da denean espezialista izan. Eta eskatzen duenak badaki ezinezkoa eskatzen ari dela. Horregatik esaten diet gurasoei irakasleak zaintzeko.

Oso adi egon behar dugu, gehiegi baita-go jokoan; neska-

mutilak, hain zuzen ere. Familiaren eta eskola-

ren arteko erlazioak ez baldin badira onak, azkenean neska-mutilek galduko dute.



gisa, maitale gisa... ni leku guztietan nago. Horregatik, eskolaren eta familiaren arteko banaketa hori ez da erreala. Nolabait familia zabal bat garela esango nuke, helburu komun batekin: neska-mutilak aurrera ateratzea.

Heziketa indibidualizatua aipatzen da, hitz polita da, baina ezinezkoa. Horretan ari garen guztiok dakigu ezinezkoa dela. Nik uste dut gaur egun irakasleei eskatzen zaiena ezinezkoa dela. Ikasturte bakoitzaren hasieran gauza berriak hartu beharra dugu, eta ez dakit nork esan behar digun horrez ordez zer utzi behar dugun. Ezinezkoa da irakaslea hainbeste estutzea.

Zer egin?

Gurasoei irakaslea zaintzeko esango nieke. Zaindu ezazue irakaslea. Azken finean, zuen neska-mutilek nozitzen dute. Errua ezin zaio inori bota. Baina irakasleari hainbeste eskatzen zaionean, denean espezialista izan dadin eskatzen zaionean, ezinezkoa da, ezin du bete. Eta eskatzen duenak badaki ezinezkoa eskatzen ari dela. Or-

duan, zaindu dezagun irakaslea, benetan diot. Zenbat eta hobeto egon irakaslea, eta gurasoekiko erlazioa ere hobea izan, neska-mutilek ere hobeto ikasiko dute. Benetan, familia baten zatitzailea baldin bada familia aurrera ateratzea, zer esan behar du irakasle batek 25 familietako seme-alabekin aritu behar badu? Gaur egun eskakizunak besterik ez ditu. Irakasleekin lan egiten dudanean ikusten dut zenbat neska-mutilek kentzen dieten loa.

Eskolari dagokionez, irakaslea, autobusetako profesionalak, jangelakoak, garbitzaileak... denek osatzen dute instituzio konplexu hori eta denak hartu behar dira kontuan. Bakoitzak bere aurreiritziak ditu eta norberaren bizitzaren, balioen eta kultura mailaren arabera izango dira. Denek zaindu behar dute erlazioa eta kolaborazioa.

Ni familia batekin egoten naizenean, egun horretan niretzat garrantzitsuen familia hori izango balitz bezala jokatu beharko nuke. Nahiz eta azkeneko bilera gaizki joan, inori errua bota gabe, egun horretako bileran gauzak ahalik eta ondoen egiteko asmoa izaten dut. "Ea gaur emakume horri entzuten diodan", "ea gaur lortzen dudana aita ulertzea", pentsatzen dut. Entzun eta ulertu. Entzun eta ulertu. Hori da egin behar dena. Eta agian, batzuetan, lortuko dut.

Irakasle gisa batzuetan hori ezinezkoa izaten da, gure bizitzako une horretan agian ez gaudelako horretarako. Orduan, laguntza eskatu behar da: "Nik ezin dut familia honekin. Norbaitek lagundu beharko dit". Nik uste dut ezina azaldu egin behar dugula, ezin aktibo bat. Eta laguntza eskatze horrek zer sortu behar du? Beste profesionalekin, agian kanpokoekin, lan egitea. Ez badigute denbora gehiago ematen gurasoekiko erlazio hori lantzeko, gauza berari bueltak eta bueltak ematen jardungo gara. Irakaslea zaintzea da aholkularien, zuzendarien, psikologoaren laguntza jasotzea eta entzutea. Irakasleari entzun egin behar zaio berak familiari entzun diezaion.

Zenbait ikastetxetan hasi dira gai honi denbora dedikatzen, hau da, erlazioak nola zaindu, nola eduki, noiz eta eta nola elkartu, zertarako... Kasu batzuetan zuzendaritza taldeak horri garrantzia ematen diolako ari dira horretan, eta beste batzuetan irakasleek indar handia dutelako eta horrelako formazioa errebendikatzen dutelako.


"Familiarekin ezin da lanik egin" entzuten da, baina ez da egia. Agian familia batzuekin ez, edo irakasle batzuekin ez. Ez dira, ordea, irakasle guztiak, ez dira ama guztiak, ez dira aita guztiak, eta ez dira eskola guztiak. Leku batzuetan lanean ari dira, buru-belarri, konpromiso bat hartuta eta helburu txikiak jarrita: "ea lortzen dudana familia horrekin elkartzea", "saiatuko naiz ea ulertarazten diodan...". Eskolak ez du familia aldatu behar, eta familiak ere ez eskola. Eguneroko lanean edo harremanean gauzatzeko moduko helburu txikiak ezarri beharko genituzke. "Orain arte mutil honekin gauzak gaizki joan badira, ea nik zer bait egin dezakedan".

Badaude "sobreinbolukratzen" diren irakasle batzuk ere, eta hori ere ez da ona. Denean bezala, neurria hartzea da zailena.

Nik esango nuke oso adi egon behar dugula bai guraso gisa familian eta bai irakasle modura. Gehiegi dago jokoan, neska-mutilak, hain zuzen ere. Familiaren eta eskolaren arteko erlazioak ez baldin badira onak, azkenean neska-mutilek galduko dute. Neska-mutilak familiaren eta eskolaren arteko lehiatasun gerrate batean jartzen ditugu askotan, hor erdian. Hainbeste gauzatan daude erdian... Eta haiek dira bitarteko gutxien dituztenak. Horregatik diot gehiegi ari garela jartzen jokoan. Orduan, adi egon behar dugu lehenengo entzuteko, gero ulertzeko eta agian laguntza eskatzeko.

Eta beti itxaropena mantendu. "Orain arte gaizki ibili banaiz edo, ea gaur zer moduz". Merezi baitu. Baina baita ere familiok eta profesionalok osatzen ditugun erlazio jokoak ulertzea. Hori ere garrantzitsua izango litzateke. ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak



Tontxu Camposi gutun irekia

Campos jauna, agur eta erdi: Hezkuntza kontseilari izendatu zintuztenetik denbora gutxi pasa da, eta badakigu oraindik zeure burua kokatzen egongo zarela, kontseilaritzako paper mordoa irakurri eta aztertzen. Jakina da, gainera, hezkuntza ez dela batere eremu erraza, eta beraz, zure denbora hartu beharko duzu egunean jartzeko. Hobe duzu hasieran tentuz hitz egitea irrist egin nahi ez baduzu, testu liburuen inguruko adierazpen horiekin bezala. Bainazoritzarrez edo zorionez, erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzu epe motzean.

Oliveriren kudeaketa gris eta negargarriaren ostean, Iztuetaren garaiak bestelakoak izan ziren. Anjeles Iztueta abertzale zintzoa zen eta borondate onenarekin hartu zuen hezkuntza kontseilaritza; bere lehenengo adierazpenetan euskal hezkuntza sistemaren defentsa sutua egin zuen. Alabaina, denboraren poderioz eta (batez ere) EAEko hezkuntza administrazioaren muga estrukturalen ondorioz, Iztuetaren hasierako grina hura hustuz joan zen. Pentsatzekoa da PPren gobernua- ren legeak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aplikatu behar izatea ataka gaiztoa izan zela Iztuetarentzat. Bera saiatu egin zen espainiar hezkuntza sistemaren nagusitasunaren adierazpen argi haiek nola edo hala saihesten, hori bai, ez maila praktikoan baizik eta diskurtso mailan. Benetan ikusgarria zen nolako *dribling* erretorikoa egiten zituen Iztuetak. Euskal Herritik Europara eta Europatik Euskal Herria zihoan, Espainia ezertarako aipatu gabe... Madriletik euskal ikastetxeetako eguneroko bizitza baldintzatzen zuten lege eta dekretu zaparrada zetorren bitartean! Ustezko euskal hezkuntza sistema bati buruz hitz egiteko gai zen, Espainiako hezkuntza sistemaren errealitatea ezin modu gordinean azaltzen ari zenean gure herrian. Diskursoak idatzi zizkionari, erretorikari dagokionez, gure zorio-

nak; politikari dagokionez, ordea, gure kritikarik gogorrena. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan legokeen "Euskal Hezkuntza Sistemaren" mitoa elikatzerak kaltea baino ez baitugu ekarri, egungo errealitatea zein den ikustea eragotzi eta, ondorioz, errealitate horretatik abiatuta, gure herriak behar duen hezkuntza sistema nazionala eskuratzeko ildo estrategikoak definitu eta modu eraginkorrean aplikatzea ezinezkoa bilakatzen baitu.

Iztuetak estatuarekiko zuzeneko konfrontazioari ihes egin zion beti. (...) Baina Kalitate Legearena gehiegizkoa izan zen. Ez zegoen Madriletik zetorren kolpe berri hura inondik inora saihesterik. Iztueta (ohi bezala) legearen kontra azaldu bazen ere, berau aplikatzen zuten dekretuak diseinatzen hasia zegoen (ohi bezala baita ere). Eta orduan, martxoak 11 ailegatu zen. PSOEek Espainikoa Gobernua eskuratu zuen eta PPren hezkuntza erreforma guztia geldiarazi zuen. Iztuetak eta bere taldeak lasaitu ederra hartu zuten.

Esan liteke kontseilari jantzia estuegia geratu zitzaiola Iztuetari. (...) Baina nahiko lukeen guztia ez zuela egiterik izan iruditzen zaigu. Agian horrexegatik, bere agintaldia amaitzera zegoela, lau urtetan zehar burutu ez zituenak kaxoitik atera eta mahai gaineran jarri zituen. Lanbide heziketan inoiz egindako euskarazko eskaintzarik zabalena egin zuen. Eta, garrantzitsuena dena, azken hogeitun urtetan indarrean egondako hizkuntza ereduaren politikaren porrota aitortu zuen.

Ziurrenik zure mahaiaren gainean izango duzu informea (...). Hezkuntza-ko eta euskalgintzako eragileok urtetan salatu duguna baieztatzen du informea horrek, alegia, EAEko hezkuntza politikak ez duela euskalduntzen. Orain informea zure mahaiari dago eta pilota zure teiatuan. (...) Pentsatuko duzu, agian, ez dela bidezkoa. Hezkuntza kontseilaritza hamar urtez zure al-

derdikideen esku egon ostean, zuri tokatu behar izatea horrelako afera garrantzitsu eta korapilotsuari irtenbidea ematea. Baina kargua hartzerakoan honen eguztiaren jakinaren gaineran egongo zinen, ezta?

Bestalde, pentsa ezazu ongi: aukera ona da zuretzat. Izan ere, hizkuntza politika berria finkatuko duen hezkuntza kontseilaritza oroitua izatea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Adarretatik heldu behar diozu afera honi, Tontxu. Eta ez zaizu zezenik faltako, Bertendonakoak kasu. Baina ez dago beste aukerarik. Milaka ikasleren hizkuntza eskubideak bermatzeko (ala urratzen jarraitzeko) erabakia zure eskutetan dago. Esan duzu hainbat aldaketa egiteko prest zaudela, besteak bestea, A ereduari dagoionez. Kasu! ez da epelkerietarako unea. A eta B eredu- tan ikaten ari diren 154.161 ikasle horiek ez dira euskaldunduko, eta D eredu- duan dihardutenek osoki euskalduntzeko arazo handiak izango dituzte, zure sailetik ezer egiten ez baduzue. Aldaketa orokorra beharrezkoa da, eta ez partxe huts bat.

Horregatik, euskara ezagutzeko eskubidea bermatuko duen hizkuntza politika berria definitzeko prozesua abai jar dezazun eskatzen dizugu. Bidezkoa da eta, gainera, hori da legeak agintzen dizuna: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazte guztiek, derrigorrezko ikasketak bukatzerakoan, bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) menperatzea. (...) Ez gara abokatuak, baina egoera bere horretan mantentzekotan, prebikaziotzat jo ote daitekeen galdetzen diogu zeure buruari. Euskararen salbatzaile ala prebikaziotzat politikoa, horra hor bi bide.

Aukera egokia egingo duzulakoan, jaso ezazu besarka bat gure partez.

Igor Arroyo
Eduarne Larrañaga
EHBEko kideak

Udako Topaketak: primeran

600 irakaslek hartu zuten parte, eta baloraziotan pozik agertu dira

Uztailean egin ziren VI. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak. 24 ikastaro, 600 partaide eta arratsaldetako saio libreetan atearik edonori zabalik, horietan edizio honen berezitasunak. Balorazioetan gehien-goia gustura agertu da ikasitakoarekin eta ikastaroen planteamenduekin. Emailek, berriz, parte hartzaileen jarrera aipatu dute bereziki: irakasle inplikatuak direla eta formazioa jasotzera euren gogoz etorri direla nabaritu egiten omen da.

Uztaileko lehen egunetan Euskal Herri osotik etorritako lagunez bete ziren Donostiako Pedagogia Fakultatea, Informatika Fakultatea eta Ekintza ikastola. Aurten ere, gehienak irakasleak ziren, emakumeak (% 84) eta Haur eta Lehen Hezkuntza dihardutenak. Dena dela, Bigarren Hezkuntzako profesionalek beste urtetan baino gehiago izan dira, eta gizonezkoen kopuruak ere gora egin du.

24 ikastaroetatik 11 berriak izan dira. Horien artean, eskari gehien izan dutenak "Adimen emozionala", "Harremanak gelan" (bullying-ari zuzendutako ikastaroa) "Dislexia", "Disgrafia" eta "Photoshop" izan dira. "Birziklatuz sortu" eta "Ikas-estilo eta estrate-


giak" ikastaroetan parte hartu dutenek ere, asebetetze maila altua agertu dute.

Saio libreak: Euskal Curriculumaz, irudiaren heziketaz eta ipuin kontaketa

Saio libreetan oro har 80 lagunek hartu zuten parte. Interesik gehien Pello Añorgaren ipuin kontaketa saioak piztu zuen: irakasleak ume, lurrean biribilean eserita egon ziren, adi-adi, ordu t'erdiz. Pedro Mari Legarretak Eskolaldirako Euskal Curriculumaz aurkeztu zuen, eta ondorengo eztabaida irekian ere ateratzen mamirik. Bestetik, Alicia Garaialdek eta Joxe Mari Auzmendik Hik Hasiren *Ilargiaren sekretua* filmaren oinarritutako material didaktikoa aurkeztu zuten. Parte-hartzaile denek nabarmendu zuten eskolan begiradaren heziketa lantzeko dagoen premia baina, bestetik, heziketarako dagoen denbora falta, gaur eskolari dena eskatzen zaiola-eta.

Datorren uztailan, gehiago

Hurrengo Udako Topaketei begira jarriak gara, aurtengoak xaxatuta. Parte-hartzaileek ikastaro berrien proposamenekin zerrenda luzea utzi digute. Zuk ere ikastaroren bat egiteko irrikarik baduzu, luzatu proposamena: bidali e-maila (hikhasi@hikhasi.com) edo deitu telefonoz: 943 371 408.



Badator Gaztetxulo Busa

Gaztetxulok 5 urte beteko ditu hila-
bete honetan, eta hori ospatzeko *Gaz-
tetzulo Busa* jarri dute abian. Euskal
Herri osoan zehar ibiliko den autobusa
da, eta geldialdi bakoitzean tokian toki-
ko ikastetxe batean solasaldi bana
egingo da. Ikastetxe horietako ikasleek
euskal kulturaren egoera eta xehetasu-
nak ezagutzeko aukera izango dute.
Hona hemen solasaldi eta geldialdi na-
gusiak:

Urriak 17

Donostiako Lauazeta ikastetxean
K belaunaldia
Kauta taldeko kide bat
Keike taldeko kide bat
Kokein taldeko kide bat
Kerobia taldeko kide bat

Urriak 18

Baionako Bernat Etxepare lizeoan
Bertsolaritza vs. Rapa
Sustrai Kolina
Amets Arzailus
MAK taldeko Jon Eiherabide

Urriak 19

Zornotzako Lauaxeta ikastetxean
Gazteak eta fikzioa
Iban Garate
Urtzi Urrutikoetxea
Ainhoa Garai
Ilaski Serrano

Urriak 20

Gasteizko Koldo Mitxelena ikastetxea
Antzerki gaztea
Itziar Urretabizkaia
Oihana Maritorea
Aitziber Garmendia
Getari Etxegarai


Urriak 21

Iruñeko San Fermin ikastolan
Nafarroako kultur sorkuntza
Gorka Urbizu
Estanga
Joana Lasheras
Hiart Leitza

Psikomotrizitate Praktikako VII. jardunaldiak Gasteizen

Lekua: Gasteizko Europa Jauregia.
Antolatzailea: Bergarako UNE-
Deko Luzaro Psikomotrizitate Eskola.
Matrikulatzeko epea: azaroaren
3 arte.
Prezioa: 115 euro /100 euro, Lu-
zaro Psikomotrizitate Eskolako ikas-
leek.

Informazio gehiagorako:
943 76 90 33



Azaroak 18

17:00 Material banaketa

18:00 Jardunaldien hasiera

18:15-20:30

***Hizlaria: PHILIPPE LEMENU**

Psikologoa, psikomotrizista, Ase-
fop-eko Formakuntza batzordeko Ko-
ordinatzailea.

*Gaia: "Identitatea eta Nerabeza-
roa". 1. zatia.*

Azaroak 19

9:30-13:30

***Hizlaria: BERNARD AUCOUTU-
RIER**

Psikomotrizitate Praktikaren sor-
tzailea eta Asefop-eko Sorrerako Presi-
dentea.

*Gaia: "Identitate desoreka eta es-
kola ikasketarako zailtasunak: nola
lagundu haurrari?"*

15:30-17:30

***Hizlaria: ALBERTO LASA**

Haur psikiatra

*Gaia: "Identitatearen genesisia eta
famili harremanak"*

17:30-19:00

***Hizlaria: PHILIPPE LEMENU**

*Gaia: "Identitatea eta nerabeza-
roa". 2. zatia*

19:00

***Jesus Rodriguez: "Poesia irakur-
tzen ez dutenentzako poesia".**

Azaroak 20

9:30-13:30

***Hizlaria: BERNARD AUCOUTU-
RIER**

*Gaia: Jarraipena. "Identitate deso-
reka eta eskola ikasketarako zailtasu-
nak: nola lagundu haurrari?"*

**GOGOETA OROKORRA ETA MA-
HAI INGURUA**

Parte-hartzaileak: Bernard Au-
couturier, Philippe Lemenu eta Berga-
rako Luzaro Psikomotrizitate Eskolako
Irakasleak.

Teknoskopia, irudimena lantzeko lehiaketa

Elhuyar Fundazioak *Teknoskopia* lehiaketa jarri du martxan. Barxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzako lehiaketa da, asma-tzaile gazteentzako lehiaketa.

Parte-hartzaileek etorkizunean erabili ahalko den asmakuntza bat proposatu beharko dute. Horretarako, irudimenezko ariketa bat egin beharko dute, horixe sarituko baita, irudimena.

Lanak aurkezteko epea urriaren 27an bukatuko da.

Informazio gehiagorako:

www.zientzia.net/teknoskopia

Karmele Alzueta saria

EAEko HH, LH, DBH, Lanbide Hastapenatarako eta Barxilergoko ikastetxeetan 2004-05 ikasturtean garatutako hezkuntza berriztatze-proiektuen sariketara aurkezteko epea urriaren 14an amaitzen da. Informazio gehiago: www.euskadi.net web gunean.

Sare 2005: "Egungo neskek, etorkizuneko emakumeak" jardunaldiak

Jardunaldion helburua generoak lehen mailako sozializazioan duen eragina aztertzea da, helduaroan emakume izango direnen jabekuntzaren alde egiteko. **Donostiako Kursalen izango izango da azaroaren 8 eta 9an.**

Besteak beste gai hauek jorratuko dira eskainiko diren hitzaldietan: Genero-nortasunen ondorengotzea gizartean: neskatoak emakume bihurtu; Hemengo neskatoak eta mundukoak; Hezkuntza interpelatuta: gizartean eta generoen arteko harremanetan sortzen ari diren arazoak. Hemengo zein nazioarteko hizlariak hartuko dute parte.

Horiekin batera, zenbait esparrutan sailkatutako hainbat panel aurkeztuko dira.

1. panela: Familiaren esparrua: *Emakume izaten ikasten familia barruan: helduarorako ereduak eta igurikizunak*: generoa eta ereduak familian; jolasa eta genero-nortasuna.

II. panela: Eskolaren esparrua: *Eskola: gizartearen ondoren-*

gotzearen eta aldatetaren artean. Genero-nortasuna eskolan: neskato izaten ikasten eskolatik beretik; adiskidetasun taldeak eta genero sozializazioa; komunikaziorako eta harremanetarako ereduak.

III. panela. Literatura eta Komunikabideak: *Emakumei buruz kontatzen dizkiguten ipuinak... eta kontatzen ez digutena*: irakurri ditzagun haurrentzako liburu-etako irudiak; sexuaren araberrako ikas-kuntza ikus-entzunezko komunikabideetan.

IV. panela. Gorputza, afektibitatea eta sexualitatea: *Elkar maitate duten neskatoak, emakume maitatuak, maitate duten emakumeak*: gorputza: borroka eremua; aldatetarako maitasun eta erotismo eredu berriak.

Izena emateko epea: urriak 26

Informazio gehiagorako:

www.sare-emakunde.com
943 428 111

Euskal curriculuma herriz herri

Euskal curriculuma osatze bidean, ikasturte honetan gizarteko erakunde-en eta eragileen ekarpenak jasoko dira, bai hezkuntza arlokoak eta bai gainerako esparrutakoak. Ekarpene horiek jasoko eta 2006. urterako euskal curriculuma egina egotea espero da, gero praktikan jartzeko urratsak ematen hasteko.

Aurtengo lanari begira jarrita, Euskal Herriak Bere Eskolak ekimen berri bat jarri du martxan: euskal curriculum-a herriz herri. Urriaren 22tik abenduaren 3ra bitartean euskal curriculum-a biltzen duen artxibategi edo dokumentu biltegi bat herriz herriz ibiliko da. Herri bakoitzean idatziko da zer

den herri horretatik euskal curriculum-a jasoko beharko lukeen ezagutza.

Artxibategia egun bakoitzean herri desberdin batean egongo da, eta egun horretan zehar euskal curriculumaren inguruko hausnarketa eta ekimenak egingo dira, goizez zein arratsaldez ikasle, irakasle, guraso, herri eragile zein herritarrekin. Goizetan ikastetxetara egingo dituzte bisitak EHBeko arduradunek irakasleekin eta ikasleekin biltzeko. Artxibategiak irakasle eskolak ere bisitatuko ditu, euskal curriculumaren garapenean eta ezarpenean berebiziko garrantzia baitute. Arratsaldetan gurasoekin, herri eragileekin eta

herritarrekin hitzorduak egingo dira.

Hona hemen artxibategiak bisitatu-ko dituen herriak:


- Urriaren 22an Tafalla
- Urriaren 27an Iruñea (Iruñerria)
- Urriaren 29an Gasteiz
- Azaroaren 4an Aretxabaleta
- Azaroaren 5ean Bergara
- Azaroaren 10ean Oiartzun
- Azaroaren 12an Orereta
- Azaroaren 14an Donostia
- Azaroaren 16an Zarautz-Orio
- Azaroaren 19an Lea-Artibai
- Azaroaren 25ean Leioa
- Azaroaren 26an Bilbo
- Abenduaren 3an Durango

argitalpenak



Euskal mitologia konparatua: jentilen akabaera Juan Inazio Hartsuaga GAIK

Lehen zatia euskal mitologia bere osotasunean interpretatzeko inoiz egin den lehen saioa da. Antzinako euskaldunek mundua nola irudikatzen zuten aztertu eta beste mitologiekin konparatzen du. Bigarrenean, Euskal Mitologia Konparatuko metodologia aplikatzen da, "Jentilen akabaera" ren esanahia argitzeko •



Elementuak Euklides

ELHUYAR FUNDAZIOA
Euklidesek K.a. 300. urte inguruan idatzi zuen *Elementuak* lana. Garaiko matematika ia osoa bilduzuen, 13 liburutan. Obrak duen garrantziaren frogada, XIX. mende bukaera arte liburua eskoletan erabili izana matematika irakasteko. Orain, euskaraz irakurtzeko aukera dugu, *Patxi Angulo* ren itzulpenari esker •



Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo Iñigo Urrutia LETE

Hizkuntza aldetik, nolako behar luke etorkizuneko Euskal Herriak? Eta beraz, irakaskuntza sistemaren norabideak zein behar luke? Irakaskuntza sistema herritarren hizkuntza integratiorako tresna eraginkor bilakatu behar da, euskal gizartearen aniztasuna eta hizkuntza kohesioa uztartuz •



Pirata Jose A. Lopetegi SAURE

Komiki liburu honek gaurko kale giroko istorio eta ateraldi laburrak biltzen ditu, gaztetxoentzako estetika erakargarri. Denek Julen Bandera Beltza izenez, "Pirata" deituraz, kalaberadun bixera gorria soinean beti, eta hizkera barrabasa mihian. Marrazkiek umore tonuari eusten diote, kolore bizitan. Koldo Bigurik itzulitako komikia da •



Barrillo eta ura IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Ingurumen heziketarako material didaktikoa da, Haur Hezkuntzara zuzendua. Uraren erabilera zentzuzkoa bultzatzea du helburu. Irakasleentzako gidan unitate didaktikoak eskaintzen dira, metodologia oinarriekin, lan plastikoak egiteko proposamenekin zein bestelako aholkuekin. Material osagarri gisa, gelarako argazkiak, hormirudiak eta CDa ere eskaintzen dira •



Joxe Panpin, jostailu saltzaile fin Juan Kruz Igerabide ELKAR

Haur literaturako *Xaguzar* sail klasikoak historia luzea du, eta ehun eta hogeita hamar titulutik gora ditu bere katalogoan. Orain, horiek guztiak berri egingo dituzte, apaindura eta itxura guztiz berria eta modernoa emanez eta beren birtuteei eusten ahaleginduz. Hiru libururekin ekin diote lan horri eta hau da horietako bat •

... goza nazazu gehiago

Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko



Iñaki Eizmendi
Ttakun Kultur Elkartea

Haurrek eta gazteek euskara egitea lortu nahi bada, eskola orduz kanpoko jardueratan euskararen erabilera sustatzea oso garrantzitsua da. Jarduera hauek, ikastorduetan egiten den lanaren osagarri oso garrantzitsuak dira. Lan hori egiteko, noski, agente nagusia hezitzailea izango da.

Baina, helburuak behar bezala zehazten al dira? Neurgarriak al dira? Hezitzaileek ba al dituzte tresnak lan hori egiteko? Modu planifikatuan lan egiten al da? Nola laguntzen diete hezitzaileei jardueren erakunde antolatzaileek?

Modu horretako galderei erantzun nahian, *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektua landu du Ttakun Kultur Elkartea. Haurrekin eta gazteekin lan egiten duten hezitzaileei zuzendua: kirol entrenatzaileak, aisiako begiraleak, antzerkiko irakasleak, gaztelekuetako hezitzaileak...

Proiektuaren nondik norakoa ikusteko, ondorengo lerroetan, oinarri sinple baina oso garrantzitsu bat aurkezten dugu.

Non koka daitezke hezitzaileak jarduera batean?

Hezitzaileak hiru leku bete ditzake taldean:

- Taldeko zentro izan daiteke: jarduera zuzentzen duenean (entrenamendu batean teknika lantzerakoan, udalekuetan tailer bat zuzentzerakoan...).

- Taldeko parte izan daiteke: jarduera zuzendu ez, baina parte hartzen duenean (jolas batean, entrenamenduko partiduan gazteekin batera aritzean...).

- Taldetik kanpo egon daiteke: haurrak eta gazteak beraien kabuz dabiltzanean.

ZER EGIN

Non kokatu behar du hezitzaileak erabileran eragiteko?

- *Haurrek guztia erdaraz egiten dute.* Hezitzaileak taldeko zentro denean eragiten hasi behar du.

- *Haurrek hezitzaileari euskaraz egiten diote, baina beraien artean gaztelaniaz egiten dute.*

Hezitzaileak taldeko parte eta taldeko zentro denean eragin behar du. Bera tartean dagoenean elkarrizketa guztiak euskaraz izatea lortu behar du.

- *Haurrek euskaraz egiteko ohitura dute, baina erdararako joera duen talde batekin biltzen hasi dira, eta erdarara jotzen dute batzuetan.*

Euskaraz ari diren bitartean hezitzailearen kokapenak ez du garrantzirik. Gaztelaniara jotzen dutenean hezitzaileak taldeko parte bihurtu behar du taldeko hizkuntzan eragiteko.

ZER EZ EGIN

Beraien artean inoiz euskaraz egiten ez duten haur eta gazteen kasuan, ez da batere eraginkorra euskaraz egiteko eskatuz aritzea. Egokiena, hezitzailea jardueran taldeko zentro edo parte denean eragitea da (horretarako hainbat estrategia erabiliz) eta, hor helburuak lortzen dituen neurrian lortu ahal izango du bera taldetik kanpo dagoenean ere haurrek eta gazteek euskaraz egitea.

atzeko atetik



Joxe Mari AGIRRETXE

“Porrotx”

MAGISTERITZAN DIPLOMATUA ETA PAILAZOA

Badira hogei urte Magisteritza Eskolan hezkuntzaren zirrikuetatik abiatu nintzela. Ondoren, nola den bizitza!, Porrotxen begietatik eskola asko ezagutzea egokitu zait.

Porrotxek eta biok Euskal Herrian zehar urtetan egin dugun bidaia luzeak, noizbait, Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolara eraman gintuen. Bertan, Oteiza hunkitzen ikusi nuen urteak betetzen zituen bakoitzean bere balkoi-pean haurrak zorion kantak abestera joaten zitzaizkionean.

Juan Gorriti ikusten dut hurrekin bat eginda urtero Zarautzen edo Arriben mendialdeko istorioak kontatzen edo itsasaldekoak entzuten, emozioei bidea ematen.

Lanetik aspaldi jubilatutako Mendi pintorea ikusten du astelehenero ikas-

Hunkitzen, emozionatzen, harritzen duten irakasleak

tolan hurrekin batera pintatzen, hurrei begiratzen eta, batez ere, ikusten irakasten.

Ostiralero haurrak kalejiran ikusten eta entzuten ditut Txapas maisuaren eskusoinuarekin amaitzear dagoen asteari eta datorren berriari kantari; lanak eta jaiak duten balioa gorai patuz, eta bietan gozatzen ikasten.

Eta hori guztia ikusten dudana bitartean, munduan, eta eskolan, askatasuna ezabatzen ari da segurtasunaren izean: “Badaezpada” gailendu da gure eskolan, eta horren izenean bat-batekotasuna galtzen ari gara. Nire barruan begiratzen dut eta oroimenean eskolan hainbeste ordutan ikasitako ezagutzak aurkitzen saiatzen naiz. Oso gutxi topatu ditut, gehienak denborak eta erabilgarritasun ezak eraman ditu. Baina eskolan hunkitu, harritu, emozionatu ninduenak hor dauzkat betirako gorderik.

Horregatik, urtean behin, Zarauzko ikastolan ospatzen duten sudurgorrien festan izaten naiz. Egun hori ez da inon iragartzen. Goiz batean ikasleak eta ira-

kasleak bildu eta lehentxeago prestatu dugun ikuskizunari ekiten diogu. Haurrak, sudur gorri eta irri zintzoak, berehala murgiltzen dira bat-batekotasunean, egunak ekarri dien sorpresan. Irakasleak ekinean ari dira, eskola antolaketan zurrunak alde batera utzi eta bizitza sorpresaz eta poz txikiz bete behar dela sinestuta. Gorritik dioen bezala: “sentitu, pentsatu, ekin!”

Txapas eta bere eskusoinua dirasaltza guztietako perrexila. Txapas berari ere jubilatzeako ordua iritsi zaiola esan diote urteek eta legeek. Baina ideiak, ilusioak, harrizko gaitasunak, lana gustura egiteak, ez dute adinik, horiek ez dira jubilatzen. Denok dugu asko emateko eskolan, artistek, etxean ditugun aiton-amonek, jendeak, oro har.

Anima zaitzake, ahaleginak merezi du. Utzi bakoitzak gure barruan darma magun umea azalarazten, ez izan beldurrik. Ordaina neurtezina da. Eta zu, Txapas, ez zaitzate la jubilatutako! •



Munduan 103 milioi haur eskolatu gabe daude.
Horietatik 3/4 Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asia hegomendebaldean bizi dira.
Eskolatu gabeko pertsona helduen 2/3 emakumeak dira.



Lagun arteko hizkerarekin jolasean

ikastaroak! • ikastaroak! • ikastaroak!

ERROZKUNTZA

Norentzat

13-16 urteko gazteentzat, D eredian ikasten dabiltenentzat.

Bertarako

Gazteek euskarazko lagunarteko hizkeraren trikimailuak bereganatzeko.

Nola

Hizkuntzarekin jolastuz eta lagun-ikaskideekin dibertituz.

Ikastaroak jasotzeko lekua

Eskatzaileek aukeratzen dutena: beren ikastetxea, beren elkartea...

ERAKUNTZA ZERBUZUA

10 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko 5 saio gazteekin.
- Gaiak haserretzea, adarrajotze eta ligatzea.

8 ORDUKO PROGRAMA



- 2 orduko 3 saio gazteekin eta 2 orduko saiobat irakasleekin.
- Gaiak haserretzea, adarrajotze eta ligatzea.

2 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko saio bat gazteekin.
- Gaiak ligatze eta haserretze eta adarrajotzea.

OHARRAK

Irakasleek gida didaktikoa jasotzen dute, saioen jarraipena egiteko. Ikasleek, berriz, *Hitzontzia* izeneko liburuxka bana, eta, horrez gainera, *Kuxkuxeroa* txat-gunean parte hartzeko aukera eskaintzen zaie.




Ttakun Kultur Elkartea • Tel. : 943 871448 • aisia@ttakun.com

Urtxintxa Eskola • Tel. : 943 270033 • jolasak@urtxintxa.org

Pirritx eta Porrotx

maite zaitut



www.katxiporreta.com

Anakleto ijito zaharrarekin eta Romi bilobatxo bihurriarekin, sutondondoan "lerele, maite zaitut" kantari eta kontu-kontari arituko gara. Zatozte zuek ere gurekin!

Pirritx eta Porrotxen abentura berriak zure herriko antzokian, kiroldegian, plazan, eskolan...
Eskaintza bereziak ikastetxeentzat, 750 eurotik aurrera

INFORMAZIOA ETA KONTRATAZIOAK Tel.: 943 332 691 / 629 349 715 • 118 Postakutxa • 20160 LASARTE-ORIA • www.katxiporreta.com